

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legerako Oinarrien Dokumentua

2021eko maiatza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LAN ETA ENPLEGU
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

1. Sarrera

XII. Legegintzaldiaren Gobernu Programaren (2020-2024) arabera, COVID-19aren inpaktuaren ondoriozko krisi-ekonomikoak areagotu egin ditu pobrezia, bazterketako eta arriskuko egoerak, baliabide publiko erabilgarriak murriztu dituen aldi berean. Egoera benetan korapilatsu horren aurrean, erakunde publikoek ahalegin handia egin behar dute inor atzean ez uzteko eta gizartearen kohesionatuta iraunarazteko, ahalegin hori baita herri-inbertsiorik onena. Agertoki horren aurrean, Eusko Jaurlaritza bat dator zerbitzu publikoak bermatzeko premiarekin, eta apustu erabakia egiten du gizarte-politiken alde, eta kalteberatasun handieneko egoeran dauden pertsona eta kolektiboekin elkartasunez jardutearen alde, krisi honetatik inor atzean utzi gabe irtetea lortzeko helburu partekatua lortze aldera.

Helburu horretan funtsezko tresnatzat jotzen dira diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) erreformatzea, hezkuntza-komunitatearekin adostuta hezkuntza egokitzea eta hobetzea, etxebizitza izateko eskubidea hedatzea, eta esparru guztietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zalantzarik gabe defendatzea.

Testuinguru horretan, Gobernu Programak bere konpromisoen artean ezartzen du bazterketaren aurkako diru-sarrerak bermatzeko sistema garatzea eta hobetzea, eta lau ekimen zehatz ezartzen ditu horretarako:

- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eredua indartzea, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren (BGDS) errealitate berria kontuan hartuz.
- Unibertsalizazioan sakontzea, oraindik behar besteko estaldurarik ez duten herritarren segmentuetara helduz eta arreta berezia jarritz ardurapeko seme-alabak dituzten familia ahulengan.
- Kudeaketa hobetzea, izapidetzean arintasuna handituz eta prestazio eta laguntza ekonomikoen zorrotasuna eta kontrola indartuz.
- Lan egin dezaketen eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak diren pertsonen jarduera ekonomikoa eta gizarteratzea zein laneratzea sustatzea.

Oinarrien Dokumentu honek helburu horiek lortzeko oinarrizko elementuak biltzen ditu, hots, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen erreforma gidatuko dutenak. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailetik datozen urteetan hedatu nahi den gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko sistemaren funtsezko elementuak —bai ikuspuntu kontzeptual eta filosofikotik, bai ereduaren kudeaketaren ikuspuntutik— biltzen ditu dokumentuak.

Oinarrien Dokumentu hau prestatzeko lana neurri handi batean sostengatzen da 2018an Eusko Legebiltzarrean Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Lege Proposamen bat aurkezteko garatutako lan-prozesuan. Ildo berean, ondoren aurkeztu den dokumentuak lege-proposamen hartan sartu ziren elementu gehienak jasotzen ditu, baita erreforma-prozesu haren esparruan egindako dokumentu teknikoetan planteatutako irizpideak, argudioak eta proposamenak ere. Zehazkiago, dokumentu honek zuzenean hauetatik ateratako elementuak jasotzen ditu:

- DSBEa erreformatzeko Batzorde Teknikoak prestatutako txostena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari 2016ko maiatzan aurkeztua;
- DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentua, sailak berak 2017ko maiatzan prestatua.

Oinarrien dokumentuan —eta horren ondorio den testu artikulatuaren proposamenean—, nolanahi ere, aldaketa garrantzitsu batzuk egin dira aurreko lege-proposamenaren aldean. Aldaketa horiek argitzen dituzten arrazoiak, funtsean, honako hauek dira:

- Alde batetik, COVID-19aren pandemiak eragin duen testuinguru sozioekonomiko berria, eta horrek produkzio-sarean, herritarren laguntza ekonomikoaren beharretan eta euskal

herritarren zati esanguratsu batek aurre egin beharreko gizarte-bazterketako arriskuaren hazkundera duen inpaktua.

- Bestetik, Espainiako Parlamentuak joan den urtearen amaieran bizitzeko gutxieneko diru-sarrera onartu izana. Prestazio hori —bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuak berak adierazten duen moduan— honako helburu nagusi honekin sortzen da: behin gutxieneko baldintza material batzuk aseta, herritar guztiek bizitza sozialean eta ekonomikoan erabat parte har dezaten lortzea, eta haustea gizabanakoen egiturazko baliabide-gabeziaren eta lan-, hezkuntza- eta gizarte-arloko aukerarik ezaren arteko lotura.

Errege lege-dekretu horren bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, foru-ogasunak izateak dakarren espezifikotasuna dela-eta, foru-araubideko autonomia-erkidegoek beren gain hartuko dituzte, beren lurralde-esparruari dagokionez, prestazio hori kudeatzeko funtzioak eta zerbitzuak, eta horrek ezinbestean hartuko ditu eraginpean diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema osoaren definizioa, irismena, kudeaketa eta finantzaketa, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera sistema horren parte izango baita.

- Azkenik, Legebiltzarrean aurreko lege-proposamena aztertzeke eta eztabaidatzeko egin ziren agerraldi eta eztabaidei esker, orain aurkezten den testuan sartu diren zenbait hobekuntza identifikatu ahal izan ziren.

Adierazi den moduan, indarrean dagoen Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea erreformatzeko proposamena jasotzen duen testu artikulatua prestatzeko orduan kontuan hartu diren oinarriak jasotzen ditu dokumentu honek. Dokumentuak artikulatu berriak jasotzen diren oinarritzko elementuak laburbiltzen ditu, baita proposatutako aldaketan testuingurua eta justifikazioa ere, ia kasu guztietan aurreko erreforma-prozesuan ezarritako printzipioak eta irizpideak abiapuntutzat hartuta. Nolanahi ere, ez da testu juridikoa, izaera programatikoa duen testua baizik. Izan ere, testu horren bidez, aurkeztutako proposamenaren oinarritzko elementuak deskribatu nahi dira, eztabaida sozial, tekniko eta politikoari bidea emateko.

Azpimarratu behar da, halaber, Oinarrien Dokumentu honetan adierazitako elementu gehienak lege-proposamenaren testuan sartuko diren arren, batzuk diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema erregulatuko duen araudiaren ondorengo fase batean gehituko direla, Legea bera arau bidez garatzeko prozesuan zehar.

Oinarrien Dokumentuaren egitura honako hau da:

- Sarrera moduko lehen atal horren ondoren, bigarren atalak Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarritzko ezaugarriak, magnitudeak eta inpaktua zehazten ditu, bai bilakaeraren ikuspegitik, bai ikuspuntu konparatu batetik.
- Hirugarren atalak proposatutako erreformaren helburu orokorrak eta oinarritzko printzipioak laburbiltzen ditu.
- Laugarren atalak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarritzko osagaiak ditu aztergai, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera tartean dela.
- Bosgarren atalak —zabalena— Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen diseinu orokorra zehazten du.
- Gainerako atalek ikuskatzeko ahalari eta zehatzeko araubideari buruzko alderdiak, gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak, eta, azkenik, sistemaren gobernantzarekin eta haren ebaluazioarekin erlazionatutako alderdiak deskribatzen dituzte.

Dokumentu honen oinarria da, bere mugekin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema euskal autogobernuaren ezaugarri nagusietako bat dela, arrakasta kolektiboa eta gure mugetatik kanpoko erreferentea. Laguntza ekonomikoa behar duten pertsona guztiei erantzuten ez dien arren, diru-sarrerak bermatzeko euskal prestazioek pobrezia larritik ateratzen

dituzte prestazio horiek jasotzen dituzten gehien-gehienak, eta nabarmen murrizten dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia-maila orokorrak. Oinarrien Dokumentu honen oinarria da, halaber, testuinguru berri horretan, DSBEa eguneratzeko benetako erronka gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduaren inguruko adostasun politiko eta soziala oinarri berrien gainean berreraikitzean datzala. Adostasun hori berreraikitzeke tresna izan nahi du Oinarrien Dokumentu honek.

2. Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarrizko ezaugarriak, magnitudeak eta inpaktua

2.1. Sarrera

2017. urtean Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila zenak prestatu zuen DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuak adierazten duen moduan, diru-sarrerak bermatzeko euskal eredu guztiz koherentea da Europako erakundeek emandako orientazioekin eta EBko herrialde nagusiek arlo horretan garatutako politikekin. 80ko hamarkadaren amaieran Frantzia edo Erresuma Batuan pobrezia-aren aurka egiten ziren politiketan oinarrituta, 80ko hamarkadaren amaieran Euskal Autonomia Erkidegoan Pobrezia-aren aurka Borrokatzeko Plan Integrala garatzeko hartutako erabakiaren testuinguruan sortu zen errenta bermatuen euskal sistema. Plan horrek —lehen aldiz Espainian— gutxieneko baliabideak bermatzeko sistema bat ezarri zuen, garai hartan “gizarte-soldata” gisa ezagutu zenaren ezaugarriak oinarrituta.

Dokumentu hartan adierazitakoarekin bat, oinarri kontzeptualei dagokienez, esan daiteke euskal ereduak Europako errenta bermatuen eredu nagusiekin partekatzen dituela honako elementu hauek:

- **Eskubide bikoitza eta elkarrekikotasuna, aktibazio-politiken esparruan.** Europako Batzordearen arabera, gizarteratze aktiborako politikak lan egiteko gai diren pertsona guztiak enplegu iraunkor eta kalitatezkoan integratzea erraztu beharko lukete, eta duintasunez bizitzeko baliabide nahikoak eman beharko lituzkete, hala egin ezin dutenei gizartearen parte hartzeko laguntzarekin batera. Planteamendu hori guztiz koherentea da diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskubide bikoitzaren ideien alde eta hartzaileren eta gizarte osoaren arteko elkarrekikotasun-harremana aitortzearen alde egiten duen apustuarekin. Koherentea da, halaber, diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak hasieratik onuradunen laneratzearen eta gizarteratzearen alde egin duen apustuarekin.
- **Baldintzapekototasuna.** Europako errenta bermatuen gainerako sistemetan gertatzen den bezala, diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak zenbait baldintza eta betebeharrak ezartzen dizkie prestazioa jasotzen duten pertsonari. Izan ere, Europako herrialde gehienek baldintza zorrotz samarrak ezartzen dituzte prestazio horiek jasotzen dituztenentzat, eta, gainera, gogortu egin dira azken urteotan krisi ekonomikoaren ondorioz. Maizen ezartzen diren baldintzak honako hauen ingurukoak dira: enplegu-zerbitzu publikoan izena ematea, laneratzeko kontratu edo hitzarmen bat eta/edo enplegu-plan bat ezartzea, enplegua bilatzeko jardueretan parte hartzea, lan-eskaintzak onartzea, aktibazio-programetan parte hartzea (dela prestakuntza, garapen pertsonala edo zerbitzu komunitarioa) edo alde aurretik beste prestazio edo diru-iturri posible batzuetara jo izana (ohiko etxebizitzaz bestelako jabetzak saltzea barne), baita administrazioari inguruabar pertsonaletan izandako edozein aldaketaren berri emateko betebeharra ere.
- **Enplegu-politikekiko lotura.** Europar Batasuneko gainerako herrialdeetan gertatzen den bezala, diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak lotura estua du enplegu-politikekin, bai kontzeptuei bai kudeaketari dagokienez. Ikuspuntu filosofikotik, 18/2008 Legeak adierazten duenez, “gizarteratzeko oinarrizko eginkizuna aitortzen dio ereduak enpleguari gurea bezalako gizarte batean, eta, hori hala izanik, kaltetuenak diren giza taldeetan langabezia-tasak eta beste talde batzuetan jarduerarik ezaren tasa handiak gutxitu beharra azpimarratzen da. Hori dela-eta, eta zenbait pertsonarentzat laneratzeko helburua oso urrutitik gelditzen dela aitorturik ere —eta beharrezko zerbitzu eta prestazioak

eskuratu beharko dituztela pertsona horiek—, araudi honen atzean, azken batean, ahalik eta pertsona gehienei laneratzen laguntzeko helburu orokorra dago, eta, helburu horrekin bat etorrita, lan-merkatuari gizarteratzen laguntzeko duen gaitasuna aitortu nahi zaio berriz ere”. Administrazio-ikuspuntutik, eta 2011n sistemaren kudeaketa Lanbideri eskualdatu ondoren, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak lotura estua du enplegu-politika aktiboekin. Eredu berari jarraitu diote Alemaniak, Austriak, Finlandiak, Norvegiak, Irlandak, Holandak edo Erresuma Batuak ere. Izan ere, herrialde horietan diru-sarrerak bermatzeko prestazioen kudeaketa enplegu-zerbitzu publikoen esku utzi dute eta/edo integrazioen bat gauzatu dute gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen artean prestazio horiek kudeatzeko.

- **Familia-unitate osoari zuzendutako prestazioak.** EBko gainerako herrialdeetan gertatzen den bezala, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema familia-unitate osoari zuzentzen zaio, haren tamaina edozein dela ere. Horrek esan nahi du familia-unitatearen berezko diru-sareren kalkulua eta prestazioaren gehieneko zenbatekoen zehaztapena unitateko kide guztiak kontuan hartuta ezartzen direla. Sistema horrek kudeaketa-zailtasun batzuk ekar baditzake ere, bereziki familia-unitatea osatzen duten pertsonak zehazteari dagokionez, elementu horrek aukera ematen du etxe berean hainbat pertsona elkarrekin bizitzearen ondoriozko eskala-ekonomiak kontuan hartzeko.
- **Izaera diferentziala eta subsidiarioa.** Europako errenta bermatuen gainerako sistemek bezala, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak izaera diferentziala eta subsidiarioa du, eta neurri handiagoan bideratzen da errentak osatzera haiek ordeztara baino. Subsidiaritasuntzat hartzen da eskatzaileak sistema horrek eskaintzen dituen gainerako babes-aukera guztiak agortu ondoren haietara jotzearen arau-asmoa. Izaera diferentzialak, berriz, onuradunaren diru-sarrerak ezarritako mugetara iritsi arte osatzen dituela adierazten du. Horrek administrazio-komplexutasun erantsia ekartzen du errenta bermatuen sistema guztietan, kontuan hartu behar baita familia-unitate bakoitzak une jakin batean zer diru-sarrera dituen prestazioari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko. Pobreziaren tranpa ezaguna ere eragin dezake, baldin eta onuradunek eskura ditzaketan laneko diru-sarrek tratamendu berezirik ez badute eta beste edozein diru-sarrera bezala zenbatzen badira behintzat.
- **Prestazioa jasotzeko eskubide subjektiboa.** EB osoan dauden errenta bermatuen sistemen funtzionamenduaren azterketak nabarmentzen du, halaber, euskal sistema dela prestazioa jasotzeko aukera zehazteko iritziazen arabera irizpiderik aplikatzen ez duen bakarretakoa, prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiei ematen baitzaie.

Oinarritzko kontsiderazio horiek abiapuntu hartuta —esan den bezala, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 2017an aurkeztutako oinarrien dokumentuan adierazi ziren—, hurrengo ataletan labur-labur jasotzen dira Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren irismenarekin eta eraginkortasunarekin zerikusia duten elementu nagusiak.

2.2. Irismen eta estaldura zabaleko eredua

2021eko otsailean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) 55.635 espediente zeuden irekita. Horrek adierazten du 100 biztanleko 3,2 titular zirela. Kontuan hartzen bada bizikidetza-unitate hartzaileen batez besteko tamaina 1,8 pertsonakoa dela, kalkula daiteke 100.000 pertsona inguru —EAEko biztanleen ia % 5— direla zuzenean DSBEaren onuradun, urteko hil jakin batean, haren modalitateetako batean. Titular desberdinen kopuruari erreparatuta, 2020. urte osoan 67.500 titular izan ziren guztira, hots, 121.000 onuradun gutxi gora behera, biztanleen ia % 6.

Taulan ikus daitekeen moduan, estaldura-tasarik handienak emakumeen artean (% 3,6, eta gizonen artean, berriz, % 2,7) eta pertsona helduen artean ematen dira (35 eta 65 urte bitartekoak), adin horretako titularren kopurua adin-tarte horietan bertan kokatutako biztanleen % 4,2ren baliokidea da-eta.

**Irekitako DSBEaren espedienteen kopurua, titularren sexuaren eta adin-tarteen arabera
(2021eko otsaila)**

		Gizonak	Emakumeak	Guztira
Absolutuak	35 urtetik beherakoak	3.280	5.287	8.567
	35 eta 65 urte bitartekoak	17.333	20.615	37.948
	65 urtetik gorakoak	2.612	6.508	9.120
	Guztira	23.225	32.410	55.635
Estaldura-tasa (%)	35 urtetik beherakoak	2,1	3,5	2,8
	35 eta 65 urte bitartekoak	3,6	4,2	3,9
	65 urtetik gorakoak	1,2	2,6	2,0
	Guztira	2,7	3,6	3,2

Iturriak: DSBEari buruzko estatistikak. Lanbide

Prestazioaren titularren profilari dagokionez, % 60k Bizkaiko lurralde historikoan dute bizilekua, % 70ek nazionalitate espainiarra dute, % 57 emakumeak dira eta % 30ek adingabeak dituzte ardurapean. % 42 langabeak dira —hots, enplegurako prest daude—, % 23 pentsiodunak, % 22 lanean daude jada eta % 11 aktibaezintzat jotzen dira, eta, hortaz, lan-merkatuan bitarteko izatetik salbuetsita daude. Unitateen % 45ek, DSBEaz gain, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzen dute, eta % 16 guraso bakarreko familiak dira, eta, hortaz, dagokien gurasobakartasun-osagarria jasotzen dute.

**EAEn urtebetez diru-sarrerak bermatzeko prestazioak jaso dituzten titularren kopurua
(titular desberdinak), ezaugarri soziodemografikoen arabera (2019)**


		Guztira	%
	GUZTIRA	66.508	100,0
Lurralde historikoa	Araba	10.112	15,2
	Bizkaia	40.348	60,7
	Gipuzkoa	16.048	24,1
Sexua	Gizonak	28.411	42,7
	Emakumeak	38.097	57,3
Nazionalitatea	Espainiarra	46.929	70,6
	Atzerritarra	19.579	29,4
Enpleguaren aurreko jarrera	Langabea	27.915	42,0
	Pentsioduna	15.810	23,8
	Landuna	15.193	22,8
	Aktibaezina	7.590	11,4
Adingabeak ardurapean	Adingaberik gabe	46.296	69,6
	Adingabeekin	20.212	30,4
Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria	Ez	35.952	54,1
	Bai	30.556	45,9
Gurasobakartasuna	Ez	55.866	84,0
	Bai	10.642	16,0

Emandako denbora	< 1 urte	7.546	11,3
	1-3 urte	21.007	31,6
	3-5 urte	10.514	15,8
	6-10 urte	17.512	26,3
	> 10 urte	9.929	14,9

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Enplegu Saila. Euskal Autonomia Erkidegoko diru-sarrerak bermatzeko prestazioen onuradunen estatistika

DSBEaren biztanleria-estaldura zabala prestazioa eskuratzeko irizpideetan izandako aldaketek eta prestazio horrek estaltzen dituen gizarte-premien hazkundek zehaztu duten azken urteotako ibilbidearen emaitza da. Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, urtean zeharreko titular kopuruak arinki gora egin zuen 1996 eta 2001 artean, eta nabarmenago 2001 eta 2008 artean, oparoaldi ekonomikoaren garaietan, prestazioa eskuratzeko irizpideak zabaltzearen ondorioz. 2008 eta 2014 artean, aitzitik, titular kopuruaren igoera oso nabarmena 2008ko finantza-krisiaren ondorioz biztanleriaren behar ekonomikoak areagotu izanaren ondorio izan zen, eta urte horretatik 2015. urtera artean titular kopurua bikoiztu egin zen ia. 2015. urtetik aurrera beheranzko joera hasi zen, baina eten egin zen beste krisiaren ondorioz 2021ean.

Urtean zeharreko titular desberdinen eta per capita BPGarekiko hartzaileko batez besteko gastuaren bilakaera (1996-2019)




Iturria: bertan landua, Lanbideren eta Eustaten datuak abiapuntu hartuta

Aurreko grafikoak EAEko per capita BPGarekiko hartzaileko batez besteko gastuaren bilakaera ere jasotzen du. Ikus daitekeen moduan, 1996an titular bakoitzeko batez besteko gastua per capita BPGaren % 17,4 zen. Proportzio hori % 19raino igo zen 2002an, eta behera egin du pixkanaka, 2019an % 14,2ra iritsi arte. Termino absolutuetan, hartzaileko batez besteko gastua urteko 5.170 euroren baliokidea zen 2019an, eta biztanleko BPGa 36.000 eurotik gorakoa zen urte horretan. Datu horrek gizarte-inbertsioaren eginkizuna adierazten du, gastuaren kontzeptuaren gainetik. Izan ere, pixkanaka, babesa hobetzen joan da, gizarteak ekonomikoki aurrera egiten zuen neurri berean, eta estaldura horretan hartzaileek izan litzaketen bestelako diru-sarrerak konpentsatu dira.

Gizarte-inbertsioaren ikuspuntutik, 2019an 346 milioi euro bideratu ziren diru-sarrerak bermatzeko errentara (DSBE), horiei etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria (EPO) bideratutako 75 milioiak gehitu behar zaizkio, horiek ere diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren parte baitira, eta 30 milioi inguru bideratu ziren gizarte-larrialdietarako laguntzetara

(GLL). Hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, Eusko Jaurlaritzaren gastu osoan DSBEari dagokion ehunekoa % 1 zen 90eko hamarkadan eta % 4 2018an, eta 2015ean izan zuen ehunekorik handiena, % 4,6.

DSBEra bideratutako gastuaren bilakaera, mila eurotan eta EJren gastuaren %an (1994-2019)



Iturria: bertan landua, Lanbideren eta Eustaten datuak abiapuntu hartuta

Gastuaren bilakaera, logikoa denez, prestazioaren batez besteko zenbatekoarekin eta titular kopuruarekin erlazionatuta dago. Titularrek hilean jasotako batez besteko zenbatekoei dagokienez, pertsona bakar batek osatutako unitateen 477 euro eta lau kide edo gehiagoko unitateen 748 euro bitartean mugitzen dira. Batez besteko zenbatekorik txikiena 65 urtetik gorakoei dagokie (hileko 273 euro), horien kasuan DSBEak kotizaziopeko edo kotizazio gabeko pentsio bat osatzen du-eta. Adingabeak ardurapean dituzten unitateen kasuan, batez besteko prestazioa hileko 694 eurokoa da. Unitate onuradun guztientzako batez besteko zenbatekoa hileko 559 eurokoa da.

DSBEaren batez besteko zenbatekoa ezaugarri soziodemografikoen arabera (2019)

Guztizko orokorra		559,8
Modalitatea	Oinarrizko errenta	578,2
	Laneko diru-sarreraren osagarria	479,9
Lurralde historikoa	Araba	597,7
	Bizkaia	562,8
	Gipuzkoa	527,5
Titularraren sexua	Gizona	566,7
	Emakumea	554,9
Etxean adingaberik dagoen	Ez	502,7
	Bai	694,2
Tamaina	1 kide	477,4
	2 kide	627,9
	3 kide	716,5
	4 kide edo gehiago	748,4

Titularren adina	45 urtetik beherakoa	651,3
	45 eta 64 urte bitartekoa	578,7
	65 urtetik gorakoa	273,1
Titularren nazionalitatea	Espainiarra	513,5
	Atzeritarra	677,1


Iturria: bertan landua, Lanbideren datuak abiapuntu hartuta

2.3. DSB Ea ikuspegi konparatua: Europako beste herrialde batzuetan dagoenarekin pareka daitekeen eredua, gainerako autonomia-erkidegoetan dagoena baino zabalagoa

Arestian adierazi den bezala, Europako erakundeek azpimarratu dute zein beharrezkoa den EBko herrialde guztiek gizarteratze aktiborako sistemak edukitzea, giza duintasunaren arabera bizi ahal izateko behar adina baliabide eta prestazio jasotzeko eskubidean oinarrituak, besteak beste (Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako Komunikazioa, 2007ko urriaren 17koa). Bestalde, diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak errealitate bihurtzen du Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Eskubideen Europako Zutabea. Horren arabera, “baliabide nahikorik ez duen edonork eskubidea du gutxieneko errentako prestazio egokiak jasotzeko, bizitzaren etapa guztietan bizitza duina bermatzeko, baita ondasunak eta trebakuntza-zerbitzuak eskuratzeko ere. Lan egin dezaketen pertsonentzat, gutxieneko errentaren prestazioak lan-merkatuan (berriz) sartzeko pizgarriekin konbinatu behar dira”.

Ildo horretan, diru-sarrerak bermatzeko euskal prestazioen diseinua eta funtzionamendua Europako herrialde gehienetan dauden ezaugarri beretako sistemetakoen oso antzekoak dira. Adibidez, gure inguruko herrialdeetan prestazio mota horretara bideratutako biztanleko gastua aztertuz gero, ikus daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko gastua —biztanleko 177 euro— EB15eko gastuaren oso antzekoa dela eta Finlandian, Belgikan, Italian edo Erresuma Batuan egindako gastuaren ildoan dagoela¹.

Diru-sarrerak bermatzeko prestazioetako gastuak EBko zenbait herrialdetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (biztanleko euroak 2018an)




Iturria: bertan landua, Eustaten eta Eurostaten datuak abiapuntu hartuta

¹Nolanahi ere, kontuan hartu behar da beste herrialde batzuetan prestazio horiek analisi honetan kontuan hartzen ez diren beste batzuek osa ditzaketela —hala nola ardurapeko seme-alaben ondoriozko familia-prestazioak, langabezia-prestazioak edo etxebizitza-prestazioak—.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere antzekoa da, Europako herrialde gehienek aldean, prestazio horien bidez ezartzen den gehieneko zenbatekoa, baldin eta zenbatekoa pobrezia larriaren atalasearekin alderatuta adierazten duen ehunekoaren arabera aztertzen bada². Izan ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, bi pertsona heldu eta bi adingabe dituen familia baten kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko DSBEaren gehieneko zenbatekoa familia horri dagokion pobrezia-atalasearen % 78 da, Alemanian edo Herbehereetan gertatzen denaren ildotik. Kasu honetan ere adierazi beharra dago, alabaina, beste herrialde batzuetan prestazio horiek analisi honetan kontuan hartzen ez diren beste batzuek osa ditzaketela —hala nola ardurapeko seme-alaben ondoriozko familia-prestazioak, langabezia-prestazioak edo etxebizitza-prestazioak—, eta horrek nabarmen areagotu ditzakeela familia horien baliabideak EBko beste herrialde batzuetan.

Lau kideko familia batentzako diru-sarrerak bermatzeko prestazioen gehieneko zenbatekoa, pobrezia larriaren atalasearen aldean, EBko zenbait herrialdetan eta Euskal Autonomia Erkidegoan (2020)




Iturria: bertan landua, Eurostaten eta SIISen datuak abiapuntu hartuta

Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan dauden gutxieneko errentei dagokienez, maiz nabarmendu dira diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduaren eta beste autonomia-erkidego batzuetan —Asturiasen eta Nafarroan izan ezik— dauden artean dauden desberdintasun garrantzitsuak, bai estalitako biztanleriaren ehunekoari bai egindako gastuari dagokionez. Izan ere, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan, 2019. urteari dagozkion datuetan Euskal Autonomia Erkidegoa biztanleko gastuan zein gisa horretako prestazioek estalitako biztanleriaren ehunekoan nabarmentzen da. Asturiasek eta Nafarroako Foru Erkidegoak bakarrik egiten dute antzeko gastua eta/edo biztanleriaren antzeko ehunekoa estaltzen dute.

² Atalase hori eskualde edo herrialde bakoitzeko batez besteko errentaren % 40ren baliokidea da.

Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen biztanleko gastua eta estaldura-tasa (2019)



Iturria: Gutxieneko errentei buruzko txostena (2019).

Diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua osatzen duten prestazioek aukera ematen dute, halaber, langabezia-prestazioen eta Gizarte Segurantzaren prestazioen estatuko ereduaren bereizgarri diren lurralde-joerak orekatzeko. Izan ere, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioetako biztanleko gastua oso handia bada ere —batez ere EAEko produkzio-ereduari lotutako kotizazioen historiaren ondorioz—, Estatuko Administrazio Orokorrek asistentzia-prestazioetan (kotizazio gabeko pentsioak, kotizazio gabeko langabezia-prestazioak, ardurapeko seme-alaben ondoriozko prestazioa, eta abar) egiten duen biztanleko gastua askoz ere txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan Espainia osoan egiten dena baino. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemarekin lotutako gastuak aukera ematen du, hortaz, Estatuak gisa horretako asistentzia-prestazioetan Euskal Autonomia Erkidegoan egiten duen gastu txikiagoa konpentsatzeko.

Urteko biztanleko gastua (eurotan) zenbait prestazio ekonomikotan Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian. 2020

	Espainia	Euskal Autonomia Erkidegoa	
	Biztanleko eurotan	Biztanleko eurotan	Espainia = 100
Kotizaziopeko pentsioak (GSIN)	2.578,9	3.957,0	153,4
Ezintasun iraunkorra	241,1	294,5	122,1
Erretiroa	1.852,6	2.944,8	159,0
Alarguntza	442,5	665,8	150,5
Zurztasuna	36,0	42,7	118,7
Familiako en aldek	6,6	9,3	140,5
Kotizazio gabeko pentsioak (IMSERSO)	48,0	27,9	58,1
LISMI prestazioak (IMSERSO)	0,2	0,1	75,5
Langabezia-prestazioak (SPEE)	630,4	489,8	77,7
Kontribuzio-maila	460,4	406,1	88,2
Asistentzia-maila	170,0	83,7	49,2
Ardurapeko semearen/alabaren ondoriozko diru-esleipena (GSIN)	88,5	61,4	69,4
Gutxieneko errentak (autonomia-erkidegoak)*	37,6	201,0	535,2
Guztira	3.383,53	4.737,1	140,0

Iturria: bertan landua, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren gizarte-prestazioen banaketa geografikoari buruzko estatistika eta Gizarte Eskubideen Ministerioaren eta 2030 Agendaren gutxieneko errenten txostena abiapuntu hartuta. *Gutxieneko errentetan egindako gastua 2019an egikaritutako gastuari dagokio. EAErako, erabilitako iturriaren arabera, 422 milioi euro zenbatzen dira. Gainerako informazioa 2020ko abenduako gastuari (bider 12) dagokio.

2.4. Pobreziaren prebentziorako eredu eraginkorra

Azkenik, nabarmentzekoa da diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia-modurik larrienaren prebentzioan izan duen inpaktua. Ildo horretan, 2017an egindako aurreko oinarrien dokumentuan adierazten zen bezala, datu guztiek nabarmentzen dute DSBEaren, GLLen eta EPOaren inguruan artikulatutako sistemak euskal biztanleriaren epe luzerako egonkortasun ekonomikoari lagundu diola, egitura-pobreziaren adierazleak nabarmen murriztu dira-eta. Eskura dauden datuek erakusten dute diru-sarrerak bermatzeko sistema eraginkorra izan dela Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezia larriaren prebentzioan, eta aukera eman duela Europako erdialdeko eta iparraldeko herrialde askoren antzeko ongizate-tasak, eta are handiagoak ere, mantentzeko.

Diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak gai izan da, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan pobreziaren eta desberdinkeria hartzundea prebenitzeko eta geldiarazteko, euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta enplegua sortzeko gaitasuna arriskuan jarri gabe, eta premia-egoeran dagoen biztanleria erakartzeko ondorio gehigarriak sortu gabe. Alde horretatik, diru-sarrerak bermatzeko politikari esker, krisialdian zehar Euskal Autonomia Erkidegoan eragina izan duen beheranzko mugikortasun-prozesuak ez ditu nabarmen areagotu pobrezia-egoera larrienak. Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemak bermatzen duen gizarte-babesari esker, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoa izan da azken krisi ekonomikoan ugalkortasun-tasak murriztu ez diren Espainiako Estatuko autonomia-erkidego bakarra. Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren etorkizuna arriskuan jartzetik urrun, prestazioen euskal sistema da euskal komunitatearen egoera sozioekonomiko konparatu hobeazaltzen duen faktoreetako bat, ongizaterako bidean aurrera egiten jarraitzeko gaitasunarekin batera.

Nabarmendu behar den lehen alderdia, epe laburrean, DSBEak Euskal Autonomia Erkidegoan pobrezia murrizteko duen gaitasuna da: 2018an, prestazio horiek jasotzearen ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan benetako pobrezia-tasa % 9,1etik % 6,1era jaitsi zen; horrek adierazten du pobrezia murrizteko gaitasuna % 35,7koa dela. Termino absolutuetan, 70.000 pertsona baino gehiago irten dira pobreziatik laguntza horiek jasotzearen ondorioz. Taulan ikus daitekeenez, DSBErik ez balego, ia 200.000 pertsona, hots, euskal biztanleen % 9,1 egongo lirateke —soilik haien berezko diru-sarrerak eta Estatuko gizarte-babeseko sistemetatik lortzen direnak kontuan hartzen badira— benetako pobrezia-egoeran. Talde horren % 69k —hots, biztanleen % 6,4— eskuratzen du DSBEa: horien ia erdiak pobreziatik irteten dira eta % 40 inguruk (biztanleen % 3,4) pobrezia-egoeran jarraitzen du. Nolanahi ere, haien egoera nabarmen hobetzen da laguntza hori jasotzeko esker, eta nabarmenki murrizten da haien diru-sareren eta pobrezia-atalasearen arteko tartea, % 74tik % 16ra jaisten baita. Azken batean, DSBEak murriztu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziaren hedapena —% 38— zein intentsitatea —% 73—.

Diru-sarrerak bermatzeko euskal prestazioek Euskal Autonomia Erkidegoko pobreziaren murrizketan duten inpaktua (2018)

	Biztanleria	Guztizko biztanleriaren %	Arriskuko kolektiboaren %
DSBEaren aurretik pobrezia-arriskuan zegoen biztanleria	197.185	9,1	100
DSBEa eskuratzen du baina ez da irteten pobreziatik	70.348	3,3	35,7
DSBEa eskuratzen du eta pobreziatik irteten da	66.219	3,1	33,6
Ez du eskuratzen DSBEa	60.618	2,8	30,7
DSBEaren ondoriozko pobreziaren murrizketaren %	35,7		
DSBEaren ondoriozko pobreziaren intentsitatearen murrizketaren %	73,0		

Iturria: bertan landua, PGDI 2018 abiapuntu hartuta.

Adierazitako datuak, nolanahi ere, inkestaren datuetan oinarritzen dira eta euskal biztanleria osoari buruzkoak dira. Estatistika-iturri horietatik eratorritako datuak osatzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa-datuak erabil daitezke, bereziki prestazioa jasotzen duten biztanleriari buruzkoak.

Hurrengo taulan adierazten da, hainbat familia-osaeratarako, pobrezia larriko egoeran egongo liratekeen unitate hartzaileen ehunekoa³. Taulako datuek adierazten dutenez, DSBEa eskuratzen duten pertsonen % 82,8 pobrezia larriko egoeran daude beren diru-sarrerekin, eta tasak 65 urtetik gorako pertsonak buru dituzten unitateen % 55en eta lau kide edo gehiagoko familien % 96ren artean mugitzen dira. DSBEa eta, hala badagokio, EPOa jaso ondoren, pobrezia larriaren tasa biztanleria horren % 9,8ra murrizten da; beraz, murrizketa % 90 ingurukoa da. Pobrezia larria murrizteko gaitasun handiena pertsona bakarreko familietan eta 65 urtetik gorakoak buru dituztenetan lortzen da —pobrezia larriko egoerak ia erabat desagerrarazten dira kasu horietan—, baina oraindik ere maila altuetan mantentzen da —premia-egoerak murrizteko ehunekoak txikiagoak dira— hiru kide edo gehiagoko familien artean eta seme-alabak ardurapean dituzten familien artean.

Diru-sarrerak bermatzeko euskal sistemaren prestazioen pobrezia murrizteko gaitasuna, oinarrizko ezaugarri soziodemografikoen arabera (2019)*

		Pobrezia-tasa prestaziorik gabe	Pobrezia-tasa prestazioekin	Pobrezia-tasaren murrizketa (%)
Guztizko orokorra		82,8	9,8	88,2
Modalitatea	Oinarrizko errenta	85,4	10,3	87,9
	Laneko diru-sarriren osagarria	71,9	7,9	89,0
Lurralde historikoa	Araba	85,5	14,2	83,4
	Bizkaia	84,1	9,3	88,9
	Gipuzkoa	77,9	8,4	89,2
Titularraren sexua	Gizona	86,4	10,2	88,2
	Emakumea	80,3	9,6	88,0
Etxean adingaberik dagoen	Ez	80,6	3,1	96,2
	Bai	88,1	25,7	70,8
Tamaina	1 kide	78,3	0,0	100,0
	2 kide	84,4	5,3	93,7
	3 kide	92,2	20,8	77,4
	4 kide edo gehiago	96,5	64,0	33,7
Titularraren adina	45 urtetik beherakoa	87,5	12,4	85,8
	45 eta 64 urte bitartekoa	88,8	10,5	88,2
	65 urtetik gorakoa	55,2	1,3	97,6
Titularraren nazionalitatea	Espainiarra	79,1	9,2	88,4
	Atzerritarra	92,3	11,4	87,6

Iturria: bertan landua, Lanbideren datuak abiapuntu hartuta. Prestazioek DSBEa eta, hala badagokio, EPOa hartzen dituzte barnean.

Pobrezia- eta desberdinkeria-mailak murrizteko tresna eraginkorrak izateaz gain, gizarteratzeko errentek jarduera ekonomikoa bultzatu eta enplegua sortzen duen eskari erantsiaren estimulua ekartzen dute berekin. Prestazio horiek eragindako jarduera ekonomikoak, halaber, zerga-bilketaren maila handiagoak ekartzen ditu, eta horrek nabarmen murrizten du prestazio horien benetako kostua. Prestazio horiek autonomia-erkidegoen mailan aztertzen dituzten lanen arabera, horien benetako kostua aurrekontuetako zenbatekoetan ezarritakoa baino % 16-17 txikiagoa izango litzateke. Hala ere, nabarmendu behar da diru-bilketa gehigarriaren % 60 baino gehiago zeharkako zergetatik etorriko litzatekeela (BEZa, zerga bereziak eta abar). Zuzeneko zergen kasuan ez bezala, foru-ogasunek kontrol eta eskumen gutxiago dituzte zerga-figura horiei dagokienean, eta horrek murriztu egin dezake maniobra-tartea finantzaketari dagokionez. Era berean, autonomia-

³ Kasu horretan ere, pobrezia larriaren atalasea familia-osaera bakoitzari dagokion batez besteko errentaren % 40ren baliokidea da.

erkidegoen ikuspegitik, esan daiteke jarduera gehigarri horren zati bat beste autonomia-erkidego batzuetako (eta atzerriko) produkzio-sektoreetara itzultzen dela, eta horrek onura ekartzen diela haien zerga-sistemei.

3. Proposatutako erreformaren helburu orokorrak eta oinarrizko printzipioak

Adierazitako datuetatik abiatuta, eta egungo testuinguru sozioekonomikoa eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren inguruan azken urteotan egin diren diagnostikolaran kontuan harturik, erreforma honekin planteatzen diren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Diru-sarrerak bermatzeko euskal eredua Espainiako Estatu osoan aplikatzen den bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara (BGDS) egokitzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari prestazio hori kudeatzeko eskumenak egikaritzeko erraztasunak ematea.
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema osoak pobrezia ekonomikoa prebenitzeko eta murrizteko duen gaitasuna hobetzea, sistemaren estaldura handituz eta bermatutako zenbatekoen nahikotasuna hobetuz, bereziki egungo eredua pobrezia larria murrizterakoan hain eraginkorra izan ez den kasuetan —hala nola hiru kide edo gehiagoko familiak eta/edo adingabeak ardurapean dituztenak—.
- Gaur egun behar bezala estalita ez dauden premia eta kolektiboen gaineko arreta hobetzea, sistemara sartzeko garaian desberdintasunak saihestuta.
- Diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren haurtzaroarekiko ikuspegi familiarra eta lagunkoia sakonago aplikatzea, haurren pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren belaunaldi arteko transmisioari aurre egiteko ahalmena areagotuta.
- Bizikidetzaren unitatearen kontzeptua argitzea. Horretarako, bermatzea etxebizitza berean bizi diren bizikidetzaren unitate guztiek prestazioak jasotzeko aukera izan dezatela eta, aldi berean, mekanismo egokiak ezartzea, kontuan hartuko dituztenak familia-unitate batek baino gehiagok etxebizitza bera partekatzen dutenean sortzen diren eskalako ekonomiak eta sustatuko dutenak familia-loturarik gabeko pertsonak pertsona anitzeko unitateetan elkar daitezen.
- Prestazio ekonomikoen kudeaketa normalizatzea, sinplifikatzea eta arintzea —erabiltzaileen zein administrazio kudeatzaileen beraren ikuspuntutik—, eta onuradunek administrazioarekiko harremanean dituzten eskubideak eta betebeharrak argitzea. Horretarako, lege honetan zenbait mekanismo eta berme sartzeko planteatzen da, alde batetik, kudeaketa arinagoa eta malguagoa izan dadin, eta, bestetik, sistemaren erabiltzaileek segurtasun juridiko handiagoa izan dezaten, identifikazio- eta kontrol-tresnak hobetzen diren aldi berean.
- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarri den eskubide bikoitzaren printzipioa aplikatuta, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gizarteratzeko eta laneratzeko zerbitzu eta programa eraginkorrak eskaintzea, batez ere gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen lan koordinatuaren bidez. Ildo horretan, honako hau lortu nahi da:
 - Eskubide bikoitzaren kontzeptuan sakontzea, eta, ildo horretan, enplegu-zerbitzuen lan-arloko laguntza eta gizarte-zerbitzuen gizarte-laguntza indartzea, biak baitira behar-beharrezkoak DSBEaren hartzailak aktibatzearen prozesuetan.
 - DSBEaren onuradunen lan-aktibazioa bultzatzea, bazterketaren aurkako borrokan euskal enpresen eta ekonomia solidarioaren inplikazioa sustatuta.
 - Enpleguari hobaria emango dion egitura-sistema finkatzea, pobrezia erantzun saihestuko duena eta enpleguan pobrezia erantzun saihestuko duena.

- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren gobernantza hobetzea, eta, horretarako, administrazioen arteko koordinazio-tresnak hobetzea, gizarte-ekintzako hirugarren sektorearen parte-hartzea erraztea eta administrazioaren mailek dituzten eginkizunak argitzea —prestazio ekonomikoak kudeatzeaz harago—, prestazio horien hartzaileek gizarte-zerbitzuen, enpleguaren, hezkuntzaren, osasunaren edo etxebizitzaren esparruan behar dituzten zerbitzuak eta laguntzak eskuratzeari dagokionez.
- Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko politikak finkatzea, gaur egun egiten diren ikerketa, berrikuntza, ebaluazio, hedapen, analisi eta prestakuntzako jarduerak egonkortzea, artikulatzea eta bultzatzea ahalbidetuko duten mekanismoak indartuta, esparru horretan I+G+b arloko estrategia zabalago baten barruan.

Esparru horretan, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarri diren printzipioak honako hauek izango dira aurrerantzean ere:

- Eskubide bikoitza. Prestazio publiko ekonomikoak jasotzeko eskubide subjektiboa aitortzen da. Horien helburua da aurre egitea bizitzaren oinarritzko premiei eta laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua bermatzera bideratutako zerbitzuei.
- Unibertsaltasuna eta eskubide subjektiboa. Lege honetan eta honek adierazten dituen legeetan ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituen edonork eskuratu ahal izango ditu haietan erregulatutako prestazioak.
- Berdintasuna eta ekitatea. Euskal administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, bermatu egingo dute lege honetan aurreikusitako prestazioak eta laguntzak berdintasun-baldintzetan eskuratzea, ekitate-irizpideen arabera, baldintza pertsonal edo sozialei lotutako inolako bereizkeriarik gabe, eta modu homogeenan autonomia-erkidego osoan.
- Elkartasuna. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak herritar guztien lankidetzara eta erantzunkidetasuna sustatuko ditu, haiek gizarteratzeko, autonomia lortzeko eta gizartearen parte hartzeko helburuak lortzearen.
- Genero-ikuspegia sartzea. Euskal politika publikoen osotasunarekin koherentziaz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak lagundu egingo du helburu orokor hauetan: emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak desagerraraztea eta haien berdintasuna bultzatzea, eta, bereziki, pobreak emakumeengan duen eragin handiagoa arintzea eta horretan prebentzio-lana egitea.
- Haurrak babestea. Euskal politika publikoen osotasunarekiko koherentziaz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak haurren pobreak eragina prebenitzen eta arintzen lagunduko du.
- Enplegua errentagarri egitea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bermatuko du lan-merkatuan sartzea aukera erakargarriagoa eta errentagarriagoa izan dadin lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoak jasotze hutsa baino.
- Gizarteratze-politikaren zeharkakotasuna. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, beharrezkoa denean, beste sistema sektorial batzuen esku-hartzea bermatuko du, hala nola gizarte-zerbitzuena, osasunarena, hezkuntzarena eta etxebizitzarena, onuradunak benetan eta eraginkortasunez gizarteratzeko helburuarekin.
- Arreta pertsonalizatua, malgua, integrala eta etengabea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua, goiztiarra eta malgua eskainiko du, onuradunen behar partikularretara egokitua, behar horiek irauten duten bitartean, eta haien egoeraren diagnostiko integralean oinarritua.

- Baliabideen kalitatea eta optimizazioa. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamenduak irizpide hauei erantzun beharko die: kalitatea, baliabideen aprobetxamendu optimoa eta prozeduren etengabeko hobekuntza. Horretarako, informazioa lekualdatzea eta datuak konparatzea bermatuko duten eta emaitzen jarraipena, ebaluazioa eta kontrola egitea ahalbidetuko duten tresnak ezarriko dira.
- Euskal administrazio guztien koordinazioa eta inplikazioa. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazio publikoek koordinazio- eta lankidetzaprintzipioen arabera jardungo dute.
- Parte-hartzea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak sustatu egingo du erabiltzaileek, gizarte-erakundeek eta herritar guztiek gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuetan parte hartzea.
- Ebaluazioa, gardentasuna eta kontuak ematea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak behar diren mekanismoak ezarriko ditu herritarrek sistemaren magnitude nagusiak zabaltzeko eta ezagutzeko, eta tresna eta prozedurak ebaluatzeko, betiere ebidentzian oinarritutako ikuspegitik.

4. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko osagaiak.

2011n gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko euskal legeriaren azken erreforma egin zenetik, funtsezko hiru arau-aldaketa egin dira legeria horrek arautzen duen sistemaren artikulazioari dagokionez:

- Etxebizitzaren Legea (ekainaren 18ko 3/2015 Legea) onartzea. Lege horrek etxebizitza izateko eskubide subjektiboa ezartzen du eta bidea irekitzen du, ordezkari aukera gisa, eskubidea betetzeko eskakizunari prestazio ekonomiko batez erantzuteko — Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legeak (abenduaren 23ko 18/2008 Legea) ezarritako etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaz bestelakoa—.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua onartzea. Dekretu horrek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzen du, premia-egoera egiaztatzen duten pertsonak Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak ezartzen duen katalogoaren zerbitzuez baliatzeko eskubide subjektiboa finkatzen du, eta, gainera, herritarrei oro har eta gizarte-bazterketako arriskuan edo egoeran daudenei bereziki zuzendutako gizarte-zerbitzuen zentroen eginkizunak eta ezaugarriak zehazten ditu⁴.
- Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera ezartzen duen maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretua onartzea. Zioen azalpenaren arabera, «zoru-prestazio» gisa konfiguratzeko da, eta bateragarria da autonomia-erkidegoek, beren estatutu-eskumenak egikaritzu, gutxieneko errenta gisa eman ditzaketen prestazio autonomikoekin, bai estaldurari bai eskuzabaltasunari dagokionez. Horrela, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren diseinuak, autonomia politikoaren printzipioa errespetatuz, autonomia-erkidegoei aukera ematen die beren babes-ekintza modulatzeko, beren lurraldearen berezitasunetara egokitzeko, laguntza-babeserako azken sare gisa betetzen duten eginkizuna zaintzen duen aldi berean⁵.

⁴ Hau da: informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua, eguneko arretarako zerbitzuak eta gaueko harrera-zerbitzuak, tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat, gizarteratze-premiei erantzuteko eguneko zerbitzua edo zentroa, gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa eta bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroak.

⁵ Espainian bizitzeko gutxieneko diru-sarrera (BGDS) abian jartzea garrantzi handiko aurrerapausoa da herrialde osoarentzat, eta pobrezia larria murrizteko gizarte-babeserako estatu-sistemaren egiturazko defizitari erantzuten dio, partzialki bada ere. Espainian hainbat urtez gizarteratzeko politikak aztertzen eta garatzen aritu diren pertsonak adierazten duten bezala, bizitzeko gutxieneko diru-sarrera berria, inongo zalantzarik gabe, aurrerapauso garrantzitsua da Estatuak bultzatutako gizarte-politikan; izan ere, 1978an egungo Konstituzioa onartu zenetik lehen aldiz, Espainiako Gobernuak erabaki du partida ekonomiko esanguratsu bat bideratzea, urtean 3.000 milioi euro inguru, gutxieneko errentaren edo errenta bermatuaren politiketara, eta Estatuak zenbait hamarkadatan falta izan den lidergo-eginkizuna

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legea indarrean egon den hamabi urteetan izan diren gainerako gizarte-aldaketekin, aldaketa ekonomikoekin eta osasun-arlokoekin batera, hiru arau horiek indarrean jarri izanak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko osagaiak birplanteatzera behartzen du. Izan ere, oinarritzko osagai horien artean gehituko dira bizitzeko gutxieneko diru-sarrera bera eta gizarte-zerbitzuen esparruan gizarteratzera bideratutako zentroak eta baliabideak, eta ezabatu egingo dira etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren aipamenak, arlo horretan eskumena duen sailari baitagokio osagarri hori tramitatzea eta finantzatzea.

Kontsiderazio horietatik abiatuta, dokumentu honetan aurkezten den proposamenak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema funtsezko bi osagairen inguruan artikulatuta mantentzen du —alde batetik, prestazio ekonomikoak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak, eta, bestetik, gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak—, nahiz eta aldaketa batzuk sartzen dituen prestazioen arteko bateragarritasunari dagokionez —DSBEaren eta BGDSaren arteko osagarritasuna eta subsidiarioritasuna argitze aldera— eta gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen esku-hartzea sistemaren erabiltzaileei begira indartzeko.

4.1. Prestazio ekonomikoak eta gizarte-larrialdietarako laguntzak

Dokumentu honetan jasotzen den erreforma-proposamenak prestazio ekonomikoak eta laguntzak bereizten ditu, ez baitagokie araubide juridiko bera. Bereizketa horretatik abiatuta, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak honako hauek dira:

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta.
- Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera.

Diru-sarrerak bermatzeko errentak oinarritzko ezaugarri hauek ditu:

- Osagarria eta subsidiarioa da titularrak eta bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonek dituzten baliabide ekonomikoekiko, baita indarrean dagoen legerian aurreikusitako edozein prestazio ekonomiko publikorekiko ere. Prestazio horiek osorik baliarazi beharko dira eskabidea egin aurretik.
- Besterenezina da, eta, horrenbestez, ezin izango da eskaini betebeharren berme gisa, osorik edo zati batean laga, konpentsatu edo deskontatu, bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko izan ezik.
- Ezin izango da atxiki edo bahitu, Estatuko legeria zibilean eta prozesalean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.
- Laneratzeko edo gizarteratzeko jardueretan parte hartzeko betebeharrari lotuta dago, lege honetan ezarritako moduan.
- Legearen erreformak, gainera, mugagabetzat jotzen du DSBEa. Hortaz, errentaren iraupena luzatu egingo da berori ematea eragin zuten arrazoiek irauten duten bitartean eta errenta eskuratzeko betekizunak eta betebeharrak betetzen diren bitartean, eta haren titularrei beharrezkoak ez diren zamak kentzen dizkie, hala nola hura aldian-aldian berritu beharra. Prestazioaren izaera mugagabearen ondorioak behar bezala neurtuta daude, prestazioaren zenbatekoa hiru hilean behin eguneratzeko mekanismoaren eta kontrol-prozeduraren bidez. Mekanismo eta prozedura horiei esker, eguneratuta edukiko dira

hartu du bere gain pobreziaaren aurkako borrokan. Nabarmendu behar da, halaber, neurriaren diseinuak alderdi berritzaileak barne hartzen dituela Espainiako esparruan —baina neurri handi batean jasota zeuden diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduari—, hala nola laneko diru-sarrerekiko bateragarritasuna, baldintzapekotasun-modu lasaiak edo prestazio ekonomikoa gizarte-zerbitzuetatik kanpoko baliabideetatik kudeatzea.

prestazioaren titularren eta onuradunen eskuratzeko betekizunak eta betebeharrak betetzeari buruzko datuak.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren ezaugarriak —Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen zerrendan sartzen da— hura erregulatzen duen araudian ezarritakoak dira.

Bestalde, gizarte-larrialdietarako laguntzek helburu dituzte gizarte-bazterketa prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko aski baliabide ez duten pertsonak.

Prestazioaren egiturari eta artikulazioari dagokienez, legeak sartzen dituen berritasunetako bat da diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitateak kentzea (gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errenta eta laneko diru-sarreraren errenta osagarria). Lege honek prestazio bakarra jasoko du, eta horren zenbatekoa aldatu egingo da bizikidetza-unitatearen baliabide guztien eta kideen inguruabarren arabera (gurasobakartasuna, desgaitasuna, mendekotasuna eta abar). Prestazio-eredu errazagoa eta ulergarriagoa izango da hartzaileentzat.

4.2. Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren araubide iragankorra

Etxebizitzaren Legean (ekainaren 18ko 3/2015 Legea) ezarritakoaren arabera, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren partetzat hartzeari uzten zaio, etxebizitza-sistemari baitagokio lege horretan jasotzen den etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatzea.

Nolanahi ere, etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari eta eskubide hori subsidiarioki beteko duen prestazio ekonomikoen sistemaren ezarpenari dagokienez, aipatutako legea garatzen duten erregelamenduzko xedapenak indarrean jarri arte, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen II. tituluaren I. kapituluko 2. atalean aurreikusitako etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarria aplikatzen jarraituko da, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak aitortu, izapidetu, aldatu eta suntsiaraziko du.

4.3. Prestazioen arteko bateragarritasuna

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari jasotako prestazio ekonomikoak elkarren artean bateragarriak izango dira, lege honetan eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrera erregulatzen duen araudian ezarritakoaren arabera. Printzipio horri jarraikiz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak honako irizpide hauen arabera aitortuko dira:

- Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazioa aitortzeko eta jasotzeko tramiteen lehenetasuna.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren subsidiarioritasuna eta osagarritasuna. Horretarako, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren zenbateko aitortua zenbatuko da.

Nolanahi ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa ezingo da aldatu bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren izan litezkeen aldaketa, etete edo azkentzeen ondorioz, horien sorburu baldin badira azken prestazio horren titularrei eta onuradunei ezarritako betebeharren erruzko ez-betetzeak.

4.4. Zerbitzuak

Gaur egun indarrean dagoen araudiari dagokionez, laneratzearen eta gizarteratzearen helburua lortzeko pertsonen eskura jartzen diren tresnen multzoa zehaztasun handiagoz identifikatzearen aldeko apustua egiten du proposatutako erreformak. Ildo horretan, Gizarteratzeko eta Diru

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren esparruan, honako hauek hartuko dira bazterketa prebenitzera, gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnatzat:

- Egoera eta beharrak baloratzeko tresnak.
- Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala.
- Enplegarritasuna sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuak.
- Gizarteratzea sustatzeko eta hobetzeko zerbitzuak.
- Esku hartzeko beste neurri espezifiko batzuk, Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonalaren esparruan.

5. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoen diseinu orokorra

5.1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko betekizunak

5.1.1. Adin-mugak

Dokumentu honetan proposatzen den erreformak 23 urtetan mantentzen du prestazioa eskuratzeko ohiko adina, salbuespen jakin batzuekin. Besteak beste, 18 urtetik aurrera, honako hau egiaztatzen duten pertsonak eskuratu ahal izango dute prestazioa:

- Pentsioduna izatea.
- Banantzeko edo dibortziatzeko tramiteak hasi izana, edo izatezko bikote edo elkartzeen erregistroko inskripzioa ezerezteko eskatu izana.
- Adingabeak, desgaitasuna duten pertsonak edo mendekotasuna dutenak ardurapean izatea.
- Ohiz kanpoko inguruabar jakin batzuen ondorioz ohiko bizilekua utzi izana.
- Gizakien salerosketaren, sexu-esplotazioaren, genero-indarkeriaren edo etxeke indarkeriaren biktima izatea, errefuxiatua izatea edo babes subsidiariorako eskubidea aitortua izatea.
- Erabateko zurztasun-egoeran egotea.
- Gurasoena ez den beste bizileku batean bizitzea gutxienez urtebete lehenago.
- Adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemaren mende egon izana adin-nagusitasunera iritsi aurreko aldiren batean, edo adingabeak babesteko legerian bizitza independenterako aurreikusitako prestakuntza-programetan parte hartu izana.

5.1.2. Bizikidetza-unitatea eratu aurreko aldia

Prestazioa eskuratzeko sinplifikatzeko, modu independentean bizitzeko betekizuna prestazioa eskatzen den unetik aurrera aplikatzen da, eta, beraz, ez da aurretiko gutxieneko eraketa-aldirik eskatzen, 23 eta 29 urte bitarteko pertsonen kasuan izan ezik; izan ere, pertsona horiek egiaztatu beharko dute modu independentean bizi direla, gutxienez, eskaera egin baino urtebete lehenagotik.

5.1.3. Eskubideak alde z aurretik egikaritzea

Prestazioa eskuratzea sinplifikatzeko, halaber, lotutako eskubideak alde z aurretik egikaritzeko eskakizuna pentsioei eta prestazio publikoei soilik aplikatzen zaie, eta ezabatu egin da eskatzaileari edo bizikidetza-unitateko edozein kideri legokiokkeen eduki ekonomikoko eskubide oro baliarazteko betebeharra, orain arte eskakizun-betebehar gisa indarrean egon dena. Betebehar hori ezabatzearekin batera, amaiera ematen zaio emakumeak zeharka diskriminatzeko modu bidegabe bati. Izan ere, eskubide horiek baliatzea mantenu-pentsioen erreklamazioetan kontzentratzen da nabarmenki, eta emakumeak dira inguruabar hori gehienbat egokitzen zaien bizikidetza-unitateen titularrak. Eskakizun-betebehar horri eusteak eragin negatiboa zuen emakumeak prestazioa jasotzeko garaian, beste gurasoari egotz dakiokkeen ez-betetze baten ondorioz.

Bestalde, ez dago neurri honi lotutako ondorio maltzurrik. Ez-betetzea egin duen gurasoaren seme-alabek ez dute beren egoera larriagotuta ikusiko, hain zuzen ere, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoari esker. Gainera, ez da inolako galerarik izango diru-kutxa publikoetan, etekinen kalkuluan mekanismo zuzentzaile bat txertatzen baita, eskubide horiek baliatzean pasibotasun-arriskurik egon ez dadin.

5.1.4. Erroldatzea eta bizilekua egiaztatzea

Dokumentu honetan proposatzen den erreformak eutsi egiten die, funtsean, Eusko Legebiltzarrean 2018an aurkeztutako erreforma-proposamenean erroldatzeari eta bizilekuaren egiaztapenari buruz ezarritako xedapenei, eta betekizun samurragoak aintzat hartzen dira premia-maila handiagoa bereizgarri duten kolektibo jakin batzuentzat. Horrela, bete egiten da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko helburua, eta, aldi berean, kontuan hartzen da gizarte-laguntzak erregulatzen dituen araudia aldatzeari buruzko Eusko Legebiltzarrearen 95/2016 Legez besteko Proposamenaren agindua. Proposamen hori 2016ko abenduaren 15ean onartu zen, eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen zion adostasun handiko gizarte-itun bat sustatzeko, besteak beste, “krisiak eragindako pobrezia-egoera berriei erantzuteko; horretarako, bizikidetza-unitateak eta horietako kide bakoitzarena berrikusiko dira, euren babesa hobetzeko eta gizarte-larrialdiko egoerak kronifikatzea ekiditeko”.

Alde horretatik, honako hauek dira proposamenaren oinarritzko elementuak, erroldatzeari eta benetako bizilekuari dagokienez:

- DSBEa eskuratzeak eskatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskaera egin aurreko gutxienez hiru urteetan modu jarraituan. Epe hori bete ezean, eskaera egin aurreko hamar urteetatik bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriren batean erroldatuta egotea eta benetan bizi izatea egiaztatu beharko dute.
- Aurreko araudian eta 2018an planteatutako proposamenean ezarritakoa ez bezala, Gizarte Segurantzaren kotizatutako aurreko aldiak ez dira kontuan hartuko prestazioa eskuratzeko eta mantentzeko betekizunei dagokienez.
- Pertsona batek benetako bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duela ulertuko da, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egin dituen egonaldiak ez badira laurogeita hamar egunetik gorakoak urte natural bakoitzaren barruan. Ez da erregelamendu bidezko geroztiko garapenik ezartzen benetako bizilekua egiaztatzeari dagokionez.
- Aurreko erreforma-proposamenean sartutako aldaketen ildotik, alde z aurreko erroldatze-aldia bi urtera murriztuko da adingabeak ardurapean dituzten unitateen kasuan, eta urtebetera genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktimeen kasuan.
- Ez zaie eskatuko Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egoteko eta bizi izateko gutxienezko aldirik —nahikoa izango da eskabidea aurkezten duten egunean egiaztatzea—, gizakien salerosketaren edo sexu-esplotazioaren biktimei, errefuxiatuei

eta babes subsidiariorako eskubidea aitortuta dutenei, edo nazioarteko asilo- edo babes-eskaera tramitzatzeko onartu dietenei, baldin eta errefuxiatuak birkokatzeke Europako sistematik edo antzeko konfigurazioko beste sistema batetik badatoz.

- Terrorismoaren biktimen eta euskal gizataldeetako kideen kasuan, ez da gutxieneko erroldatze-denborarik egiaztatu beharko, eta nahikoa izango da eskabidea egiten duten unean Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta daudela eta bertan benetan bizi direla egiaztatzea.

5.1.5. Errenta- eta ondare-mailak

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko, eskatzaileek bizikidetza-unitate bateko kide izan behar dute, eta unitate horretako kideek, oro har, ez dute izan beharko oinarritzko premiei lotutako gastuei aurre egiteko baliabiderik, halakotzat ulertuta:

- Ez daukatela ondasun higiezinik, dirurik, titulurik, balorerik, ibilgailurik eta, oro har, bizikidetza-unitatearen osaeraren arabera urtebetean egoki lekietan diru-sarrerak bermatzeko errentarako gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoaren halako bost baino balio baliokide handiagoa duen beste edozein ondasun.
- Ez daukatela bizikidetza-unitatearen osaeraren arabera egoki lekietan diru-sarrerak bermatzeko errentarako gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoa baino hileko etekin handiagorik.

5.1.6. Eskuratzeko betekizunekin erlazionatutako beste alderdi batzuk

Legeak garrantzizko beste elementu batzuk gehitzen ditu eskuratzeko betekizunei dagokienez:

- Ezin izango dute diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratu erregimen arrunteko edo itxiko espetxe batean dauden pertsonak, ezta izaera sozial, sanitario edo soziosanitarioko egoitza-zerbitzu bateko plaza baten erabiltzaile iraunkorrek ere, plaza hori oso-osorik funts publikoekin finantzatuta dagoenean.
- Behar bezala justifikatutako arrazoirik izan ezean, ezkontideen edo bikotekideen bizileku berean bizi beharko dute titularrek, ezkontuta badaude edo ezkontzaren antzeko lotura badute eta banantzeko edo dibortziazteko tramiterik hasi ez badute, edo izatezko bikote edo elkartzeen dagokion erregistroko inskripzioa ezerezteko eskatu ez badute, edo genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima ez badira.

5.2. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak eskuratzeko bizikidetza-unitateak zehaztea

Diru-sarrerak bermatzeko prestazioak eskuratzeko bizikidetza-unitateak zehaztea funtsezko kontua da, eta askotariko hurbilketak daude, oso bestelakoak, prestazioen eta/edo lurraldeen arabera. Hala, gizarteratzeko gutxieneko errenten kasuan, autonomia-erkidego askok gehieneko mugak ezartzea erabaki dute, etxebizitza berean jaso daitezkeen prestazioen kopuruari dagokionez, eta bizikidetza-unitateak beren familia- edo ahaidetasun-loturen arabera kontuan hartzeari dagokionez. Kotizazio gabeko pentsioen kasuan, berriz, aplikazio indibidualizatuagoaren alde egin da. Edonola ere, etxeen barruan gertatzen diren eskala-ekonomiak kontuan hartzen ditu, eta murrizketa-irizpide jakin batzuk aplikatzen ditu bizileku edo familia-unitate berean mota horretako prestazio bat baino gehiago jasotzen direnean.

Adierazi beharra dago, halaber, BGDSaren diseinuari dagokionez, Gizarte Segurantzaren eta ekonomiaren arloetan genero-arrakala eta beste arlo batzuk murrizteko neurriak onartzen dituen otsailaren 2ko 3/2021 Errege Lege Dekretuak sartutako aldaketen ondoren, ez zaiola gehieneko mugarik ezartzen bizileku berean ezarritako bizikidetza-unitateen kopuruari. Hortik ondorioztatzen denez, bizileku bakoitzean DSBEak estalitako gehieneko unitate kopuru bat

ezartzeak esan nahiko luke DSBEak muga hori gainditzearen ondorioz estaltzen ez dituen unitateetako pertsonak BGDSak estalita egon litezkeela, eta/edo funtsezko desadostasuna egongo litzatekeela DSBEaren eta BGDSaren ondorioetarako bizikidetza-unitatea zehaztearen artean. BGDSak aintzat hartzen du, halaber, bizileku berean aurreikusitako ahaidetasun-loturak ez dituzten pertsonak elkarrekin bizi direnean, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren titular izan daitezkeela gizarte-zerbitzuek ziurtatutako bazterketa-arriskuan daudenak.

Aurrekari horiek kontuan harturik, Oinarrien Dokumentu honetan planteatzen den erreformak honako elementu hauek kontuan hartzen ditu:

- BGDSan bizilekuko gehieneko prestazio kopururik ez ezartzea.
- Bizikidetza-unitate independente bakoitzari aplikatutako formula hautatzean individualizaziorako eta aukera pertsonalerako hautabide handiagoak ezartzeko beharra, errentaren gaineko zergari aplikatutako mekanismoen ildotik, pertsonen zergak batera edo banaka ordaintzea hauta baitezakete.
- Familia-loturarik gabeko pertsonak bizikidetza-unitate independente bakar batean elkartzea erakargarriagoa egiteko beharra, pertsona bakarreko unitateak eratu beharrean.
- Prestazioa kudeatzen duen administrazioak egiaztatu behar dituen elementuak ahal den neurrian sinplifikatzeko beharra.
- Salbuespenezko bizikidetza-unitateak eratzeko beharra, ohiz kanpoko izaera duten egoera jakin batzuk jasotzeko eta pentsiodunen eta haien mende dauden pertsonen tratamendu autonomia bermatzeko.
- Azken urteotan izandako aldaketa soziodemografikoak kontuan harturik, bizikidetza-unitatetzat jotzea zehazten duen odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko maila murriztearen komenigarritasuna.

5.2.1. Ohiko bizikidetza-unitateak zehazteko irizpideak

Irizpide horiek abiapuntu hartuta, bizikidetza-unitatea zehazteko proposatzen den sistemaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- Bizikidetza-unitatea osatzen dute bizileku batean bizi diren pertsona batek edo gehiagok. Bat baino gehiago badira, elkarrekiko lotura izan behar dute odolkidetasuneko eta ezkontza-ahaidetasuneko, adopzio, familia-harrera iraunkorreko edo adopzio aurreko harrerako bigarren gradurainoko harremanaren bidez. Ezkontza-loturaren bidez edo ezkontza-loturaren antzeko baten bidez elkartutakoek ere osatzen dute bizikidetza-unitatea.
- Ezkontzaren antzeko harremantzat hartzen da bi pertsonak —adin nagusikoak edo adingabe emantzipatuak— duten lotura afektiboa, ahaidetasun-harremantik izan gabe lerro zuzenean edo alboko lerroan (bigarren mailaren barruan), ezkontuta egon gabe edo, egotekotan, izatez bananduta egonda, egoitza berean modu egonkor eta nabarian bizi badira. Ezkontzaren antzeko harremana egongo da izatezko bikoteen erregistroren batean inskribatuz gero —bikoteen edo izatezko elkartzeen legerian xedatutakoarekin bat etorritik—, harremana dokumentu publikoan formalizatuz gero edo harreman hori zuzenbidean onartutako beste edozein bide baliatuta frogatuz gero.
- Gainera, kontrakorik frogatu ezean, ezkontzaren antzeko harremana dagoela ulertuko da honako inguruabar hauetatik edozein suertatzen denean:
 - o Azken lau urteetan gutxienez bi urtez elkarrekin bizitzea, etenik gabe nahiz etenekin.
 - o Elkarrekin bizi diren pertsonen ondorengo komunak izatea.

- Bizileku berean bizi diren eta aurrez adierazitako ahaidetasun-loturak ez dituzten pertsonak bizikidetza-unitate bat era dezakete, ohiko moduan eta haien guztien adostasunarekin, ahaidetasun-lotura duten pertsonen baldintza berberetan. Horrela, bizileku berean ahaidetasun-loturarik edo antzeko loturarik ez duten pertsonak bizi direnean, pertsona bakarreko bizikidetza-unitateak edo bizi diren pertsona guztiak edo batzuk bilduko dituen bizikidetza-unitate bakar bat eratu ahal izango dute. Halakoetan, bizikidetza-unitate hori osatzen duten pertsona guztien adostasuna eskatuko da.

5.2.2. Salbuespenezko bizikidetza-unitateak zehazteko irizpideak

Bizileku berean bizi diren pertsonekin izan lezaketen ahaidetasun-harremana gorabehera, pertsonak salbuespenezko bizikidetza-unitateak eratu ahal izango dituzte, baldin eta honako inguruabar hauetakoren batean badaude:

- Gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktima izatea.
- Genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima izatea.
- Pentsioduna izatea⁶.
- Banantzeko edo dibortziazteko tramiteak hasi izana, edo izatezko bikote edo elkartzeen erregistroko inskripzioa ezerezteko eskatu izana.
- Lehen semea edo alaba eduki edo adoptatu izana, edo % 45eko edo hortik gorako desgaitasuna duen edo gutxienez II. graduako mendetasun-kalifikazioa duen pertsona bat hartu izana.
- Ohiko bizilekua utzi izana, hipoteka betearazteko prozedura baten indarrez, errentak edo zor diren zenbatekoak ez ordaintzeagatik bizilekua utzarazteko epai irmoaren ondorioz, gizarte-bazterketako arriskuan geratu gabe errentamenduaren ordainketei aurre egin ezin izateagatik, bizigarritasunik ezaren deklarazioaren indarrez edo behar bezala egiaztatutako etxebizitzaren irisgarritasun-arazoaren ondorioz.
- Erregelamenduz zehazten diren beste batzuk. Bizileku berean sortzen diren kalteberatasun bereziko egoerekin, bazterkeriarekin edo beharrezko bizikidetzarekin lotuta egon beharko dute.

BGDSaren erregulazioarekin bat, salbuespenezko bizikidetza-unitateen iraupena ezin izango da hiru urtetik gorakoa izan, pentsiodunek osatutako unitateen kasuan izan ezik.

5.2.3. Bizileku berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago izatearen bateragarritasuna

- BGDSa erregulatzen duen araudiak ezarritako aurrekariari jarraikiz, DSBEaren esparruan ez da ezartzen bizilekuko gehieneko prestazio kopururik.
- Bizileku berean elkarrekin bizi izatearen ondorio diren eskala-ekonomiak kontuan hartzeko asmoz, bizileku berean diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioa jasotzen duten bizikidetza-unitate bat baino gehiago bizi direnean, indize zuzentzaile bat aplikatuko da bakoitzari dagokion zenbatekoa kalkulatzeko, honako arau hauen arabera:
 - o Bi bizikidetza-unitate bizileku bakoitzeko: oinarritzko zenbatekoaren eta osagarri bakoitzaren % 85.

⁶ Lege honen ondorioetarako, pentsioduntzat hartuko da honako egoera hauetako bati dagokion pentsioaren onuraduna: kotizaziopeko erretiroa, ezintasun iraunkorra, alarguntasuna, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruak, kotizazio gabeko baliaezintasuna edo erretiroa eta zurtasuna —baldin eta onuraduna adin nagusikoa eta ezindua bada, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko graduarekin—. Pentsioduntzat hartuko da, baita ere, bere kargura seme-alabak izateagatik familia-prestazio baten kausatzaile den adin nagusikoa.

- Hiru bizikidetza-unitate bizileku bakoitzeko: oinarritzko zenbatekoaren eta osagarri bakoitzaren % 80.
- Laugarrenetik aurrera gehitutako bizikidetza-unitate bakoitzeko, % 5 murriztuko da oinarritzko zenbatekoari eta osagarri bakoitzari aplikatu beharreko ehunekoa.

5.3. Familia-unitatearen baliabide globalak kontuan hartzea

DSBEa erreformatzeko Batzorde Teknikoak 2016an egindako txostenak nabarmentzen zuenez, ondare-maila jakin bat gainditzen duten pertsonen prestazioa eskuratzeko ezarritako muga batzuk oztopo izan daitezke, ondare-muga horiek gainditu arren, oinarritzko premiak asetzea eragozten duten diru-sarrera erregular oso txikiak dituzten pertsonentzat. Era berean, prestazioa jasotzea eragotz dezake oso balio txikiko eta likidazio zaileko higiezinak edukitzeak (lonjak, landaguneetako etxebizitzak edo biztanle gutxiko guneetakoak...), jabeen inolako mozkin ekonomikorik ekartzen ez badiete. Txostenak gaineratzen zuen, hala ere, izaera orokorragoko beste prestazio batzuen subsidiarioa den heinean, logikoa dirudiela eskatzaileei lehenik eta behin beren baliabideetara eta/edo ondarrera jo dezatela eskatzea, likidagarria eta nahikoa izan daitekeen heinean, ezarritako lege-araudiaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko sistemara jo aurretik.

Disfuntzio horiek zuzentzeko, higiezin horien balioa eta/edo likidazio-ahalmena bereizteko premia planteatzen zuen, diru-sarrerak bermatzeko sistemara jotzeko premia objektiboa duten pertsonen DSBEa eskuratzeko ez eragozteko. Zehazkiago, proposatzen zuen premia-egoera objektiboan dauden pertsonen —ohiko etxebizitza ez diren eta oso balio eskaseko edo gauzatzen zailak diren ondasun higiezinak dituztenei— DSBEa eskuratzeko aukera emango dieten formulak aplikatzea, horretarako kasuan kasuko ondasunen katastroko balioari lotutako prestazioa partzialki murrizteko sistema bat abian jartzearen bidez, katastroko balio horren ehuneko bat bizikidetza-unitatearen errentatzat hartuta, eta, hortaz, hasieran eskuratzeko modukoa den prestazioaren zenbatekoa proportzio horretan murriztuta. Nolanahi ere, sistemak ahalbidetuko du, kasu jakin batzuetan, prestazioa murrizteko kontuan hartuko den balioa zero izatea; hortaz, kasu horietan ez da murriztuko prestazioaren zenbatekoa.

Orientazio horiei jarraikiz, eta 2018an Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako erreformaren ildotik, proposamen honek tratamendu berria ematen dio prestazioak eskuratzeko baliabideak zehazteari, bereziki ondarea zenbatzeari dagokionez, premia-egoeran dauden pertsonak hobeto babes daitezen.

5.3.1. Kontuan hartzen diren eta salbuesten diren errentak

Zenbatekoa zehazteari begira kontuan hartzen diren eta salbuetsita mantentzen diren errentei dagokienez, oinarritzko baliabideak honako hauek izango dira:

- Etekinen zenbaketan sartuko dira norberaren edo besteren konturako lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik datozenak.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren subsidiarioa eta osagarria da. Hortaz, prestazio hori jasotzea bizikidetza-unitatearen baliabide ekonomikoak zehazteko zenbatuko da, DSBEaren zenbatekoa kalkulatzeko.
- Enplegurako pizgarria indartzeko, norberaren edo besteren konturako lanetik datozen diru-sarreraren ehuneko jakin batzuk salbuetsita geratuko dira, 5.9 puntuan ezarritakoaren arabera.
- Honako hauek ere diru-sarrera gisa kontuan hartuko dira, erregelamendu bidez zehazten den moduan:
 - Lortuko liratekeen zenbatekoak eduki ekonomikoko eskubideen titularrek eskubide horiek baliarazi izanez gero, baldin eta pentsio eta prestazio publikoekin lotutako eskubideak badira. Beste eskubide batzuen kasuan, horiek

baliarazi izanez gero lortuko liratekeen zenbatekoak zenbatuko dira prestazioaren eskabideari dagokion datatik hasita sei hilabete igaro ondoren.

- Jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez diru bihurtzeko zaila den ondare higiezinak edukiz gero zehazten diren kopuruak, baldin eta premia ekonomikoko egoera zehazteko aurreko artikuluan ezarritako mugaren bat gainditzen bada.
- Bizikidetzak-unitateko kideren baten ondarearen gainean justifikaziorik gabeko galera ekonomiko bat hautematen denean ezartzen diren zenbatekoak.

5.3.2. Ondarea kontuan hartzea

Ondarea kontuan hartzeari dagokionez, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Ondarea zenbatzeko, beren gainean jabetza-, edukitza- edo gozamen-titulu juridikoa dagoen ondasun higigarri eta higiezinaren multzoa sartuko da.
- Ondarearen baloraziotik salbuetsita geratuko dira ohiko bizileku diren etxebizitza edo bizitokia eta lan-jarduerarako erabiltzen den eraikina, salbu eta jabetzako etxebizitzak aparteko balioa badu, erregelamendu bidez zehazten den moduan.
- Era berean, ondarearen baloraziotik salbuetsita geratuko da etxeko ostilamendua, salbu eta horretan aparteko balioa duten ondasunak badaude, erregelamendu bidez zehazten den moduan.
- Jaraunspen, legatu edo dohaintza bidez jasotako ondarea egonez gero, eta, hala badagokio, ezarritako mugak gainditzen badira, baldin eta premia-egoera objektiboa badago, ondare hori diru bihurtzeko zaila dela jo ahal izango da, erregelamendu bidez zehazten diren moduan eta ondorioekin.

5.4. DSBEaren zenbatekoa finkatzea eta kalkulatzeko moduak

Prestazioaren zenbatekoei dagokienez, aurreko erreformari begira egindako lan teknikoek adierazten zuten praktikan euskal prestazioen eredia —DSBEa eta etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) barne— arrazoiz egokitzen dela, zenbatekoetan eta baliokidetasun-eskaletan, pobrezia-atalaseak ezartzerakoan biztanleek formulatutako premietara, Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestak (PGDI) garatzen duen metodologiaren arabera. Egindako analisi batzuek diotenez, ordea, prestazioa jasotzen duten pertsona batzuen iritziz haren zenbatekoa baxuegia da. Era berean, erraz egiazta daiteke —ezarritako baliokidetasun-eskalak eta mugak direla eta— DSBEaren zenbatekoak, gaur egungo definizioan, bereziki eskasak direla hiru kide edo gehiago dituzten familia-unitateentzat —horien artean, seme-alabak dituzten familiak nabarmentzen dira—. Horren ondorioz, pobreziatik babesteko ahalmen txikiagoa du familia horiei dagokienez.

Bestalde, ezin da ahaztu bizitzeko gutxieneko diru-sarrerak oinarritzko zenbateko batzuk ezarri dituela Estatuko lurralde osorako —bestalde, kotizazio gabeko pentsioei (KGP) lotutakoak—. Zenbateko horiek autonomia-erkidego guztietarako zoru gisa jarduten badu ere, diru-sarrerak bermatzeko sistema autonomikoek osatu ditzakete eta osatu behar dituzte, prezio maila altuagoak dituzten autonomia-erkidegoetan (Euskal Autonomia Erkidegoa kasu) oso bereziki.

Aldaketa garrantzitsu batzuk sartu diren arren, oinarrien dokumentu honetan planteatzen diren zenbatekoak zehazteko sistemak Eusko Legebiltzarrean 2018an aurkeztutako erreforma-proposamenean planteatutakoa jasotzen du funtsean, bizikidetzak-unitate guztientzako oinarritzko zenbateko komun batetik eta osagarri indibidualen sistema batetik abiatuta egituratzen baita. Kasu honetan, osagarrien sistema horrek kontuan hartzen ditu titularra eta berekin bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsonen guztiak, haien adina edozein dela ere, eta zenbateko bera ezartzen du guztientzat. Gainera, aintzat hartzen ditu bizikidetzak-unitatea osatzen duten pertsonen ezaugarriak edo behar espezifikoak ere (gurasobakartasuna, desgaitasuna eta abar), bizikidetzak-unitatearen ezaugarriei lotutako zenbait osagarri aplikatuta.

Azkenik, aipatzekoa da kobrantza eta ordainketa bidegabeen arazoa ere. Arazo hori, neurri batean, prestazioaren zenbatekoak bizikidetza-unitateen diru-sarrera aldakorretara etengabe doitzeak dakarren zailtasun administratiboaren ondorio da. Prestazioaren kudeaketa sinplifikatze aldera, eta Batzorde Teknikoaren 2017ko txostenean⁷ adierazitakoaren ildotik, zenbatekoak hiru hilean behin eguneratzeko mekanismo bat planteatzen da. Mekanismo hori bateragarria da eskabidea egiten den hileko diru-sarrerak kontuan hartzearekin, prestazioa jasotzeko eskubidea eta prestazioaren zenbatekoa lehen hiru hilabeteetan ezartzeko garaian.

Elementu horietatik abiatuta, dokumentu honetan planteatzen den zenbatekoak zehazteko mekanismoak honako helburu hauek ditu:

- Gaur egun indarrean dauden babes-mailak hobetzea eta BGDSak bermatutako babes-maila osatzea, EAEn dauden gastu-premia handiagoei erantzuteko.
- 2018an aurkeztutako erreformaren ildotik, berariaz hobetzea kide gehien dituzten familiei ematen zaien babesa, eta, bereziki, adingabeak dituzten familiei ematen zaiena. 2018an hartutako aukeraren aurrean, zenbateko bereko osagarri indibiduala planteatzen da titularraren gehigarriak diren pertsona guztientzat, bizikidetza-unitateko kideen kopurua edo adina edozein dela ere.
- Babes-maila gehigarri bat ematea pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateei, guraso bakarreko familiei, desgaitasuna duten pertsonen eta genero-indarkeriaren biktime diren pertsonen.
- Bai bizikidetza-unitate independente bakoitzari dagokion hasierako zenbatekoa zehazteari dagokionez, bai prestazioa aldian-aldian eguneratzeari dagokionez, Administrazioaren aldetik arinagoa izango den jardunbidea ezartzea, kudeaketa-prozedurak sinplifikatu eta ordainketa eta kobrantza bidegabeak sortzea galaraziko duena.

5.4.1. Zenbatekoak eta osagarriak zehazteko mekanismoa

Irizpide horietatik abiatuta, honela definitzen dira zenbatekoak eta osagarriak zehazteko mekanismoak:

- Bizikidetza-unitate bati dagokion gehieneko errenta bermatua ezartzen du honako hauei dagozkien zenbatekoen baturak: oinarria, bizikidetza-unitateko kide bakoitzeko osagarri indibidualak eta bizikidetza-unitateari lotutako osagarriak.
- Oinarrizko zenbatekoa kopuru finkoa da, eta bizileku batean oinarrizko premiak asetzerat bideratzen den gutxieneko gastua adierazten du. Osagarri indibidualekin eta bizikidetza-unitateari lotutako osagarriekin batera, diru-sarrerak bermatzeko prestazioari aplikatu beharreko gehieneko errenta bermatua zehazteko balio du, baita gizarte-larrialdietarako laguntzen zenbatekoa finkatzeko ere.
- Legea indarrean jartzen den unean, oinarrizko zenbatekoa izango da bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren onuradun indibidual bati dagokion hileko errenta bermatuarena. Era berean, zenbateko hori izango da Estatuko aurrekontu orokorretan ezarritako kotizazio gabeko pentsioen urteko zenbatekoaren % 100 zati hamabi. Gaur egun (2021eko martxoa), hileko 470 euro da.
- Osagarri indibidualek bizikidetza-unitatearen gastuen banaketa kuantifikatzen dute, hura osatzen duten adin nagusikoen eta adingabeen kopurua kontuan hartuta. Arau hauen arabera aplikatuko dira:

⁷ Ildo horretan, Batzordeak honako hau proposatu zuen: "DSBE jasotzeko baldintzak zehazteko erabiltzen den formularen aldaketak egiteko aukera aztertzea, indarraldi espezifikoak ezarri ahal izateko —ahal dela, hiru hilekoak— hura eskuratzeko baldintza eta betekizunetarako; horrela, berrikuspenen artean gerta daitezkeen aldaketek ez dezaten eraginik izan prestazioaren zenbatekoan —ezta hura jasotzeko eskubidean ere—, eta, ondorioz, ez dezaten kobrantza bidegaberiak sorrarazi".

- Titularra: oinarritzko zenbatekoaren % 50.
- Onuradun gehigarri bakoitzeko, edozein adinetakoa dela ere: oinarritzko zenbatekoaren % 30.
- % 25eko igoera aplikatuko zaio oinarritzko zenbatekoari guraso bakarreko unitateetan eta/edo % 45etik gorako desgaitasuna duten pertsonak eta/edo genero-indarkeriaren biktimak integratzen diren unitateetan. Pentsiodunak integratzen diren unitateetan, % 40ko osagarria aplikatuko da, eta gehikuntza horiek metatu ahal izango dira adierazitako egoerak aldi berean gertatzen direnean, pentsiodun-osagarriaren salbuespenarekin, zeina bateraezina izango baita desgaitasun-osagarriarekin, baldin eta pentsiodunak bakarrik aitortuta badu desgaitasuna.
- Aurreko lege-proposamenean ez bezala, erreforma honetan ez da ezartzen prestazioa eskatzean onartutako betebeharrak betetzeari lotutako inplikazio aktiboko koefizienterik.

Elementu horietatik abiatuta, jarraian datorren taulan jasota daude egungo proposamenean, aurreko erreforma-proposamenean eta prestazioen egungo definizioan ezarritako zenbatekoak, gurasobakartasunari eta pentsiodunek osatutako familiei lotutako osagarriak bakarrik kontuan hartuta.

	2018ko proposamena	Egungo egoera	2021eko proposamena
Pertsona heldua bakarrik	660	706	705
Bi pertsona heldu	824	907	846
Pertsona heldua + 1 adingabe	885	958	964
Bi pertsona heldu + 1 adingabe	946	1.003	987
Pertsona heldua + 2 adingabe	971	1.054	1.105
Bi pertsona heldu + 2 adingabe	1.032	1.003	1.128
Bi pertsona heldu + 3 adingabe	1.093	1.003	1.269
Pertsona heldu pentsioduna	785	810	893
Bi pertsona heldu (bat, pentsioduna)	978	1.013	1.034
Hiru pertsona heldu (bat, pentsioduna)	978	1.094	1.175

5.4.2. Gehieneko zenbatekoak eguneratzea

Adierazitako oinarritzko zenbatekoa urtero eguneratuko da EAEko Aurrekontuen Legearen bidez.

5.4.3. Prestazioa eguneratzeko hasierako zenbatekoa eta aldiak zehaztea

Bizikidetza-unitate bati hileroko dagokion diru-sarrerak bermatzeko errenta zehazteko, kontuan hartuko da, batetik, familia-osaera horretarako gehieneko errenta bermatuaren eta, bestetik, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztien errenta eta diru-sarrera eskuragarrien osotasunaren arteko aldea. Horretarako, arau hauek aplikatuko dira:

- Prestazioa aitortzeko ebazpenean, honako hauek hartuko dira kontuan: eskabidea egiten den hilabetean eskuragarri dauden errenta eta diru-sarrera guztiak, baita data horretan bermatutako gehieneko errenta ere.
- Prestazioaren zenbatekoa hiru hilean behin eguneratuko da. Eguneratzean, aurreko hiruhilekoan eskuragarri dauden errenta eta diru-sarrera guztiak hartuko dira kontuan, baita aldi berari dagokion gehieneko errenta bermatua ere. Aldea zati hiru egingo da, eta

zatidura izango da hurrengo hiru hileroan aplikatzekoa den diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbatekoa.

- Horrela kalkulaturik, zenbatekoa ez da aldatuko, inguruabarrak edo familiaren diru-sarrerak aldatuz gero ere, harik eta aurreko eguneratzea egin zenetik hiru hilabete igaro arte. Orduan, eguneratu egingo da berriro, eta hurrengo hiru hileroan aplikatuko beharreko zenbatekoa ezarriko da.
- Diru-sarrera konputagarriak aldatzeak hurrengo eguneratzea egin behar den datatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa horren ondorioz diru-sarrerak bermatzeko errenta eten edo iraungi egiten bada hura eskuratzeko baldintzak aldi baterako edo behin betiko galtzeagatik, prestazioa eteteko eta azkentzeko arauak aplikatuko dira.
- Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa zehazteko, eskabidea egin eta prestazioaren zenbatekoa berrikusi zen datetan zegoen bizikidetza-unitatea hartuko da kontuan.
- Bizikidetza-unitatea osatzen dutenen inguruabar pertsonalak edo haien osaera aldatzen badira, eta aldaketa horrek diru-sarrerak bermatzeko errenta igotzea edo jaistea badakar, prestazioaren zenbatekoa eguneratu behar den datatik aurrera izango ditu ondorioak aldaketa horrek.

5.4.4. Gehieneko zenbatekoak

Egungo proposamenaren ez da planteatzen gehieneko mugarik DSBEa jasotzeko. Prestazioaren zenbatekoan mugarik ez ezartzea honako arrazoi hauengatik justifikatzen da:

- Edozein muga gainditzea lotzen da, ia soilik, bizikidetza-unitatearen tamainarekin eta planteatzen diren osagarri gehigarriekin. Familia handienak babesteko helburua bateraezina da bizikidetza-unitateko kide kopurutik eratorritako mugak ezartzearekin, eta kontraesanean dago beste esparru batzuetan izandako jardunbidearekin, hala nola esparru fiskalean. Horretan, ondorengoen kopuruaren arabera mozkinen metaketak ez du mugarik.
- Ahaidetasun-loturarik gabeko pertsonak pertsona bakarreko bizikidetza-unitatean beren borondatez elkartzearen alde egiteak gomendatzen du ez mugatzea bizikidetza-unitatearen tamainaren eta prestazioaren zenbatekoaren arteko lotura.

Hala ere, DSBEa eta gizarte-larrialdietarako laguntzak modu konbinatuan jasotzeko muga erlatibo bat planteatzen da. Ildo horretan, bizikidetza-unitateak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio eta laguntzekin lortutako diru-sarreraren urteko zenbateko osoa titularrarenaren ezaugarri berdinak dituen bizikidetza-unitate bati urtean dagokion diru-sarrerak bermatzeko errentari aplikatu beharreko gehieneko errenta bermatuaren % 200 izango da gehienez.

5.5. Prestazioa tramitatzearekin eta kudeatzearekin lotutako alderdiak

5.5.1. Erantzukizunpeko adierazpena eta horren ondorioak

Diru-sarrerak bermatzeko errenta tramitzeko eta bideratzeko prozedurak azkartzearen, proposatzen da prestazioa eskatzen duten pertsonen erantzukizunpeko adierazpenak egin ditzaten bultzatzea.

Erantzukizunpeko adierazpenak sartzea lege honen berritasun garrantzitsu bat da, eta islatzen du erabat aitortzen zaiela konfiantza Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal

Sistemaren hartzaileei, baita aitorten horren ondorioen garrantziari lotutako erantzukizun osoa beren gain hartzen dutela ere. Erantzukizunpeko adierazpenek prestazioa eskuratzea errazten diete premia-egoeran dauden pertsona guztiei, eta, aldi berean, interes publikoak babesten dituzte. Izan ere, adierazpen horien inguruan kontrol-dinamika garrantzitsuak sortzen dira, Sistemari kalteak saihesteko. Gainera, ondorio zorrotzak ezartzen dira prestazioa aitortzea bidegabea dela agerian geratzen den kasuetan, hala nola: faltsutzea, funtsezko zehaztasunik eza edo erantzukizunpeko adierazpenarekin lotutako beste edozein inguruabar.

Gogoeta horietatik abiatuta, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskuratzeko prozedura erregulatuko duen araudiak ezarriko du diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango dutela eskabidearekin batera. Adierazpen horretan, berariaz adieraziko dute, beren erantzukizunpean, lege honetan prestazio hori aitortzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela, hori egiaztatzen duen dokumentazioa dutela, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jarriko dutela eskatzen zaienean, eta konpromisoa hartzen dutela prestazioa jasotzen duten bitartean betebeharrak horiek betetzen jarraitzeko. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu eta hurrengo hilabetearen lehen egunetik aurrerako ondorioekin aitortuko du prestazioa, esleitura dituen kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak galarazi gabe.

5.5.2. Bidegabe jasotako prestazioak itzultzea eta horri lotutako erantzukizunak preskribatzea

Oinarrien Dokumentu honetan planteatzen den erreformak honako elementu hauek bilduko ditu bidegabe jasotako prestazioak itzultzeari eta horri lotutako erantzukizunak preskribatzeari dagokienez:

- Bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra lau urtera preskribatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren araudian ezarritakoarekin bat etorritik. Epe hori zenbatzen hasiko da prestazioak kobratu zirenetik edo horiek itzultzea eskatzeko egintza egikaritu ahal izan zenetik, bidegabeko kobrantza eragin zuen arrazoia edozein izanda ere.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistematik bidegabe jasotako prestazioak itzultzeko betebeharra betearazlea izango da hori adierazten duen ebazpena administrazio-bidean irmoa denean.
- Itzulketa konpentsazio bidez egingo da, zor den zenbatekoa aitortutako prestazioen ordainketaren zenbatekotik kenduta. Izan ere, konpentsazioa hobeto egokitzen da prestazioen titular edo onuradun izaten jarraitzen duten zordun askoren kalteberatasun ekonomikoko egoerara.
- Prestazioa jasotzeko eskubiderik ez badago edo jaso beharreko zenbatekoa itzuli beharreko zenbatekoa baino txikiagoa bada, bidegabe jasotako zenbateko bat itzultzeko betebeharra adierazten duen ebazpen irmoaren jakinarazpenak edo ordaindu gabeko zorra erreklamatzeko egintzaren jakinarazpenak hasiera emango dio diru-bilketa prozedurari, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduari jarraikiz, geroago konpentsazio gehiago egiteko aukera galarazi gabe.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioen titularrek eta onuradunek, eta egitate, omisio, negozio edo egintza juridikoei jarraikiz prestazio bat iruzurrez lortzen parte hartzen dutenek modu solidarioan erantzungo dute bidegabe jasotako prestazioen itzultzean.

5.5.3. Bitarteko elektronikoen bidez tramitatzea eta adimen artifizialeko sistemak erabiltzea

Legeak erregulatzen du prestazioaren onuradunek eskubidea dutela prestazioa kudeatzen duen administrazioarekin harremanetan jartzeko, sentsibilitate handienetik, zerbitzu elektronikoen irisgarritasuna bermatuta, bazterketa digitalerako eskubidea babestuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeei ingurune gero eta digitalago baterako

eraldaketan zeregin bat aitortuta eta titularren eta onuradunen alfabetizazio digitalaren alde eginda.

Idea horretatik abiatuta, Legeak ezartzen du Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioen titular eta onuradun guztiek eskubidea izango dutela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanak izateko, betiere eskubide-berdintasuna bermatuta, erabilitako bitartekoa edozein dela ere.

Erregelamendu bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren titular edo onuradun jakin batzuek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko betebeharra ezarri ahal izango da. Horretarako, pertsona horiek bete beharko dituzten eta, gutxienez, betebeharra duten pertsonen prestakuntzaren nahikotasuna eta beharrezkoak diren bitarteko elektronikoa eskuratu eta erabiltzeko aukera bermatuko duten betekizunak finkatuko dira.

Bitarteko elektronikoen bidez bideratuko dira Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari lotutako ahalak baliatzeko prozedurak, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduan.

Bestalde, Legeak aurreikusten du prestazioen kontrolean adimen artifizialeko sistemak erabiltzea. Izan ere, egiaztatu du sistema horiek datozen urteetan protagonismo handia hartuko dutela administrazio publiko guztien zereginetan. Dena den, sistema horiek etikoki erabiltzeko konpromiso aitortzen du. Erregulazio berria da Euskal Autonomia Erkidegoko ordenamenduan, baita Espainiakoan ere.

Hala, kontrol-ahala baliatzean, sistema algoritmikoak edo adimen artifizialeko beste sistema batzuk erabili ahal izango dira, baina haien aplikazioa ezin izango da zabaldu aurkeztutako dokumentazioko errore, huts edo omisioen funtsezkotasuna edo ez-betetzeak baloratzera, haiek justifika ditzaketen arrazoiak aztertu eta zehaztera, edota erabaki diskrezional bat edo inguruabarren analisi eta balorazioan oinarritutako erabaki bat hartzea dakarren beste edozein tramitetara, zeregin horiek guztiak pertsonak egingo baitituzte.

5.5.4. Identifikazio indibidualerako elementuak

2017ko maiatzean aurkeztutako DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuak dioenez: “(...) nortasuna frogatzea erabakigarria dela DSBEa bezalako sistema batean. Izan ere, sistema horretan, identifikazio pertsonal hutsak —diru-sarrerarik ez izatea egiaztatzearekin batera— eskubidea ematen du diru-laguntza bat jasotzeko. Ildo horretatik, adierazi behar da eskuragarri dagoen dokumentazio motari dagokionez sortzen den kasuistikak —bereziki, atzerritarrekin— izugarri zailtzen duela administrazio-kudeaketa eta, gainera, iruzurrezko jokabideei atea zabaltzen diela. Horrek biziki zailtzen jartzen du prestazioaren gizarte-bideragarritasuna”. Idea horretatik abiatuta, Dokumentuan identifikazio indibidualaren kontrola hobetzea gomendatzen zen, baita balizko iruzur-egoeren prebentzioan aurrera egitea ere.

Gogoeta horietatik abiatuta, eta Legebiltzarrean 2018an aurkeztutako erreforma-proposamenean planteatutakoaren ildotik, Legearen artikuluetan jasotzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sistema biometrikoak erabili ahal izango dituela bere zerbitzuen erabiltzaileak eta/edo prestazioen onuradunak identifikatzeko, horiek Administrazioarekin duten harremana errazteko, legegintzaldi honetan abiarazitako digitalizazio-joerarekin koherentziaz eta Europar Batasunak bultzatutako modernizazio-proiektuarekin bat etorritz.

Zehazkiago, Legeak aldaketa bat sartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legean. Horren arabera, Lanbidek ziurtagiri elektronikoa erabiliko ditu dokumentuak identifikatu eta sinatzeko —administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduan—, baita, hala badagokio, beste autentifikazio-prozedura edo sistema biometriko batzuk ere, zerbitzuen erabiltzaileak eta prestazioen onuradunak identifikatzeko, datuak babesteko legeriatik eratorritako zehaztapenak kontuan izanda.

5.5.5. Agertzeko betebeharra

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren titularrak eta onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan agertzerak deitu ahal izango dira, benetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direla edo lege honetan ezarritako beste edozein betekizun edo betebeharrak betetzen dutela egiaztatzeko. Neurri proportzionatua da, eta justifikatuta dago titular eta onuradunek laguntzeko duten betebeharrean eta mekanismo eraginkor bat ezartzeko premian. Mekanismo horrek bidea eman behar du, beste batzuekin batera, benetako bizilekuaren betekizuna egiaztatzeko, hori bereziki garrantzitsua baita prestazioa bidegabe jaso izanaren zantzu sendoak dauden kasuetan.

Agertzeko zitazioan jasoaraziko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zein bulegotan agertu behar den, agerraldiaren data, ordua eta xedea zein diren, eta ez agertzeak zein ondorio dakartzan. Nolanahi ere, behartutako pertsona adierazitako lekuan, datan eta orduan agertzen ez bada, justifikatutako eta behar bezala egiaztatutako arrazoirik izan ezean, ulertuko da ez dela Euskal Autonomia Erkidegoan bizi adierazitako datan, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beste agerraldi baterako deitu beharko du, benetako bizilekua eta zehazten diren betekizunak edo betebeharrak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

5.5.6. Sektorre publikoko erakundeek informazioa emateko betebeharra

Euskal sektorre publikoaren araubide juridikoari buruzko legerian ezarritako administrazio publikoen arteko lankidetzak-betebeharraren esparruan, agintariak, administrazio publikoetako organoen titularrak eta sektorre publikoan bildutako gainerako erakundeak behartuta daude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari prestazioak aitortzeko, aldatzeko, mantentzeko, eteteko edo azkentzeko garrantzitsua den informazio guztia ematera, baita beharrezkoa dena ere egiaztatu eta kontrolatzeko, ikuskatzeko eta zehatzeko ahala baliatzeko, baldin eta informazio horrek zerikusia badu lege honetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzearekin.

Lankidetzak-betebeharrak horren xedea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku dauden edo beste edozein administrazioak prestatu dituen dokumentuak ez aurkezteko interesdunek duten eskubidea baliaraztea.

5.5.7. Prestazioa etetea eta azkentzea

Legeak eutsi egiten dio prestazioa eteteko eta azkentzeko araubide klasikoari, zeina bereizita baitago zehatzeko ahala baliatzen. Jurisprudentziak bermatzen du bereizketa hori, eta banandu egiten ditu araubide horren izaera eta zehapen-izaera hertsia, nahiz eta zehapen-ebazpen batek prestazioa azkentzea ekar dezakeen. Nolanahi ere, etenaldien eta azkentzeen eredu honetan garrantzizko aldaketak sartu dira, batez ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eteteari dagokionez.

- Alde batetik, bizikidetzak-unitateak babesteko mekanismo bat sartu da, orain arte ezezaguna. Mekanismo hori oso garrantzitsua da adingabeek osatutako unitateentzat, eta betebeharrak jakin batzuk betetzen ez badituzte prestazioaren ordainketa partzialki etetea datza. Horrela, eteteak bizikidetzak-unitatearen ezaugarriak lotutako osagarriak eta osagarri indibidualak soilik eragingo die, ez-betetzearen erantzulea prestazioaren titularra bada, edo aipatutako osagarrietako azkenari, ez-betetzea onuradunetako bati egotzi ahal bazaio.

Arau hori salbuetsi egiten da etetearen arrazoia denean Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala (GPIP) sinatzeak uko egitea, hura egiten ez laguntzea edo hura sinatzeko betebeharrak ez betetzea. Horrek berekin dakar prestazioa osorik etetea. Izan ere, erruzko omisio horiek kalte larria eragiten diote Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren xedeak, gizarteratzeko edozein helburu eta aukera zapuzten dute eta.

- Bestetik, argi eta garbi mugatzen dira prestazioa etetea dakarten kasuak eta prestazioa azkentzea eragiten dutenak.

Gogoeta horietatik abiatuta, dokumentu honetan aurkezten den erreforma-proposamenak honako eskema hau ezartzen du eteteak eta iraungitzeak arautzeko, testu honen seigarren atalean deskribatutako zehapen-araubidearekin lotuta:

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteak ondoriorik gabe uzten du prestazioa jasotzeko eskubide subjektiboa, osorik edo zati batean. Etetea erabatekoa edo partziala izan daiteke, etetea eragin duten arrazoen arabera. Halakoetan, eteteko kausen barruan dauden pertsonen dagozkien osagarri indibidualei eragingo die, eta oinarritzko zenbatekoari eutsiko zaio, baldin eta onuradun bat gutxienez mantentzen bada.
- Zantzu nahikoak daudenean prestazioa eteteko edo azkentzeko arrazoiak daudelako, edo titullarrek edo onuradunek lege honetan tipifikatuta dauden arau-hauste astun edo oso astunak egin dituztelako, kautelaz eten ahal izango da diru-sarrerak bermatzeko errenta osoaren edo horren zati baten ordainketa, aipatutako prozeduretan eman daitekeen ebazpenaren eraginkortasuna ziurtatzeko.
- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteak prestazioaren ordainketa etetea ekarriko du. Etenaldiak urtebete baino gehiago irauten badu, prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da. Eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertu ondoren edo erabakitako etetearen epea bete ondoren, prestaziorako eskubidea berriro hasiko da interesdunak eskatuta, baldin eta prestazioa aitortzea eragin zuten betekizunei eusten bazaie.
- Prestazioa honako arrazoi hauengatik azkenduko da, besteak beste:
 - o Titularraren heriotza.
 - o Eskatutako betekizunen bat behin betiko galtzea.
 - o Prestazioa jasotzeko eskubidea urtebetetik gora etetea.
 - o Hiru etete-ebazpen, bi urteko epean betebeharrak bera ez betetzeagatik.
- Eteteko eta azkentzeko prozedurek eragingo diote, bakarrik, bizikidetza-unitate bakoitzari dagokion bizitzeko gutxienerako diru-sarreraren zenbatekoari (hala bada), hura erregulatzen duen araudian betekizun eta betebeharrak horiek berariaz betetzen ez direnean.

5.6. Pertsonen eskubideak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekiko harremanetan

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bermatu egingo du administrazio-prozedura erkideari buruzko legeriak aitortutako pertsonen eskubideen eraginkortasuna administrazio publikoekiko harremanetan. Era berean, administrazio egokirako eskubidea bermatuko du, euskal sektore publikoari buruzko legerian ezarritako moduan. Horri dagokionez, gogoratu behar da eskubide horrek protagonismo nabarmena hartu duela jurisprudentzian azken urteotan, eta horren inguruan doktrina-gorputz bat sortu dela. Horrek behartu egiten du Administrazioaren jardunbideak berraztertzea, bidezko zaintzaren eta arretaren printzipio egituratzaile moduko batetik abiatuta. Printzipio hori prozedura eta tramiteak betetzetik haratago doa.

Gogoeta horietatik abiatuta, Lanbideak:

- Benetako administrazio-babeserako eskubidea bermatuko du, halakotzat ulertuta bere esku utzitako gaiei buruzko erabaki bat lortzeko aukera.
- Bereziki, erabakiak interesdunaren gizarteratze-prozesuan edo bazterketa-egoeraren okerragotzean izan dezakeen eragina hartuko du kontuan; nolanahi ere, hori kontuan hartzeak ezin izango du ordenamenduaren aurkako erabakirik babestu.

- Zaintzeko betebeharra eta behar bezalako ardura zainduz jardungo du, tartean diren interes eta egitate garrantzitsu guztiak haztatuta eta kontuan hartuta, eta interesdunei legez eta konstituzioz aitortutako berme eta eskubideen eragingarritasun osoa zainduta.
- Bere esku dagoen eta prozeduraren barruan azkenean hartutako erabakian eragina izan dezakeen informazio juridiko garrantzitsua emango die interesdunei.
- Interesdunari espedienterako sarbidea bermatuko dio, espedienteari eransten zaizkion frogak, txostenak, dokumentuak eta abar jakinaraziko dizkio, eta entzunaldia emango dio, betiere ezagutza hori garrantzitsua izan badaiteke defentsa-eskubidea eraginkortasunez baliatzeko.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ebazpenek argi eta hizkuntza ulergarrian adieraziko dituzte erabakiaren oinarri diren gertakariak eta oinarri juridiko garrantzitsuak.
- Erabakiak legez ezarritako epearen barruan hartzeaz gain, izapiddeen eta epeen betetzean gertatutako neurriz kanpoko atzerapen oro saihestuko du, eta debekatuta geratuko dira prozedura bidegabe atzeratzen duten jokabide zabarrak eta luzagarriak.
- Prozedurei buruzko ebazpenean, faktore garrantzitsuak hartuko ditu kontuan, eta baztertu egingo ditu garrantzitsuak ez direnak.
- Kontrako administrazio-egintzak administrazio-bidean irmoak direnean baino ez ditu betearaziko, eta administrazio-errekurtso bat ebazteko epea (nahitaezkoa edo aukerakoa) igarotze hutsak ez du ahalbidetuko errekurritutako egintza betearaztea.

5.7. Titularren eta onuradunen betebeharrak

5.7.1. Titularren betebeharrak

Dokumentu honetan planteatzen den erreforma betebeharren esparru argi eta zehatz bat ezartzeko premian oinarritzen da. Esparru horrek, batetik, prestazioaren kudeaketa erraztu behar du eta, bestetik, erabiltzaileei ahalbidetu behar die prestazioa jasotzeak dakartzan betebeharrak argi eta garbi ezagutzea, prestazioaren erabilera egokia eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra bermatuta. Ildo horretan, erreformak aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu. Aldaketa horiek bideratuta daude betebeharren katalogoa objektibatzeraz, horrek prestazioaren xedearekin duen zuzeneko loturaren arabera. Hala, ezabatu egiten dira funtzionaltasunik gabeko betebeharrak edota, egiaztatu ahal izateko, titularren eta onuradunen esparru pribatuan sartzea eskatzen dutenak, halaber, hautazkoa den azterketa batetik zenbait jokabide edo gastu kontrolatzeko justifikazio bakarrarekin.

Zehatzago esanda, titularrek eta onuradunek honako oinarritzko betebeharrak bete behar dituzte:

- Erantzukizunpeko adierazpenetan, prestazioaren betekizunak eta haren mantentzea egiaztatzean informazio zehatza eta egiazkoa ematea, eta jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzen dituztela bermatzea.
- Lanbiden erregistratuta egotea erregelamendu bidez zehazten den moduan.
- Egoeraren eta beharren hasierako balorazioan laguntzea.
- Gizarteratzeko Plan Integratu eta Pertsonala egiten eta sinatzen laguntzea, eta plan horretan jasotako konpromisoak eta betebeharrak betetzea.
- Enplegurako edo enpleguaren aurreko zerbitzuetarako prest egotea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile edo enpleguaren aurreko zerbitzuen eskatzaile gisa inskribatuta egotea, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegarritasuna hobetzeko abian jartzen dituen estrategietan parte hartzea.

- Era berean, justifikatutako arrazoirik ezean, ezingo diote uko egin Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak proposatutako lan-eskaintza bati, enplegurako prestakuntza-ikastaro bati eta enplegurako hautaketa-prozesu batean parte hartzeari. Ezin izango dute beren borondatez beren lan-jarduera utzi, beren borondatez lanpostu batean baja hartu, diziplinazko arrazoiengatik kaleratuak izan, ezta borondatezko eszedentzia-egoera edo lanaldi-murritzeta hartu ere.
- Bidegabe jasotako zenbatekoak itzultzea.
- Administrazioaren aurrean agertzea, hala eskatzen zaienean laguntzea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egin ditzakeen kontrolak eta ikuskapenak erraztea.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea titularraren eta onuradunen betekizunak eta betebeharrak betetzeari eragiten dioten inguruabarrak, edo prestazioa jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketenak.

Legeak ezartzen du, gainera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak edo onuradunak salbuetsi ahal izango direla Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala negoziatzeko eta izenpetzeko betebeharrak betetzetik, baita enpleguaren aurreko zerbitzuak erabiltzeko prest egotetik eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta egotetik ere, baldin eta ikasketa arautuak egiten ari badira eta 28 urtetik beherakoak badira edo kotizaziopeko pentsioa jasotzen ari badira ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik, kotizazio gabeko pentsioa jasotzen ari badira baliaezintasunagatik, kotizaziopeko pentsioa jasotzen ari badira erretiroagatik edota 65 urte bete badituzte.

5.7.2. Gizartearentzako jarduerak egiteko nahitaezkotasuna indargabetzea

DSBEa erreformatzeko Batzorde Teknikoaren txostenak, 2016an egindakoak, Diru Sarrerak Bermatzeko Sistema erregulatzen duen araudian honako hau aldatzea gomendatzen zuen: DSBEa jasotzen duten eta adin aktiboan dauden pertsonen ezarritako betebeharrak gizartearentzat lan egiteko prest egoteko. Horretarako, gomendatzen zuen xedapen horiek egokitzea araudi orokorrera eta bermatzea prestazioaren hartzailerik ez zaiela ezarriko herritar guztiei ezartzen zaien bestelako betebeharrak edo betebeharrak gehigarriak. Bestalde, DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuak, 2017an egindakoak, nabarmentzen zuen xedapen horiek izan duen garapen urria edo nulua, besteak beste, indarrean dagoen esparru arauemailean duen doikuntza zailagatik eta boluntariotzako erakundeek antolatutako jardueretan parte hartzeko prest egon beharrak berak dakarren kontraesanagatik⁸.

Ildo horretan, 2018an Legebiltzarrean aurkeztutako proposamenak bezala, DSBEa erreformatzeko proposamen horretan, eutsi egiten zaio Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duen azaroaren 24ko 4/2011 Legearen bidez sartutako 19.1.i bis artikulua ezabatzeari. Artikulu horretan, honako betebeharrak hau ezartzen da: "titularra eta haren bizikidetzak unitateko kideak lanerako adinean daudenean, gizartearentzat lan egiteko prest egotea Administrazioak lurraldeko boluntariotza-erakundeekin bitartez modu ezohikoan eskatzen dienean".

5.7.3. Administrazioak prestakuntza- edo lan-alternatibak eskaintzeko konpromisoa hartzea

2017an aurkeztutako DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuan planteatzen zen prestazioaren kobrantzan denbora luzeegiz jarraitzeak dakarren arriskua eta, oro har, prestazioan denbora luzez irauteak dakarren arazoa, DSBEaren kobrantza bizitzeko modu egonkor bihurtzeko berezko arriskuarekin. Baldintza horiek funtsezkoak dira bermatutako

⁸ Horren haritik, 2013an Enplegu eta Gizarte Politika Sailak eskatuta egindako txosten batean jaso zen ez zela erraza xedapen horren lege-esparrua ezartzea; izan ere, antolamendu juridikoaren arabera "gizartearentzako lanak" terminoa erabat penala da, atxilotetaren edo isunaren ordezkotzat hartzen baita. Era berean, txostenak agerian uzten zituen horretarako prestakuntza espezifikoak ez zuten pertsonekin horrelako jarduerak gauzatzeak berekin zekartzen zailtasun operatiboak. Era berean, txostenak adierazten zuen horrelako betebeharrak kontraprestazioen eta, are, zigorraren ikuspegitik soilik ulertzeko arriskua zegoela, eta nabarmentzen zuen prestazio ekonomikoa ez litzatekeela lotu behar onuradunari aplikatutako betebeharrak espezifikoekin, beste pertsona batzuei, oro har, aplikatzen ez zaizkienekin.

gutxieneko errentak diseinatu eta kudeatzeko. Ildo horretan, 2017an aurkeztutako DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuan planteatzen zen prestazioaren kobrantzan denbora luzeegiz jarraitzeak dakarren arriskua eta, oro har, prestazioan denbora luzez irauteak dakarren arazoa, DSBEaren kobrantza bizitzeko modu egonkor bihurtzeko berezko arriskuarekin. Baldintza horiek funtsezkoak dira bermatutako gutxieneko errentak diseinatu eta kudeatzeko. Dokumentuan adierazten denez, arazo hori funtsezkoa da bermatutako gutxieneko errenten diseinuan eta kudeaketan, ez hainbeste kolektiboaren kronifikazio bereizgarria antzematen delako langabezian dauden beste pertsona talde batzuekiko —hori gertatzen da talde hori gainerakoengandik bereizten duten arrisku-faktore objektiboen ondorioz—, baizik eta, kualifikazio txikieneko lana desagertzeko joera duen gizarte batean, lan-merkatuaren egituratik bazter geratzeko arriskua areagotzen ari delako.

Diagnostiko horretatik abiatuta, Legebiltzarrean 2018an aurkeztutako proposamenaren ildotik, DSBEa erreformatzeko proposamen honetan eutsi egiten zaio Administrazioak hartzaileen profil jakin batzuei prestakuntza- edo lan-aukerak eskaintzeko duen konpromisoari, aktibatzeke zailtasun handienak dituzten hartzaileei laneratzeko eta enplegu-aukerak sortzeko eskubidea gauzatzeko helburuarekin.

Hala, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak dituen betebeharretan sartzen da, besteak beste, bermatzea prestazio ekonomikoen titularrei edo onuradunei, Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonalaren esparruan, enplegu-eskaintza bat (lan-merkatu arruntan edo publikoki diruz lagundutako programen bidez) edota ikaskuntzaren emaitzak egiaztatzea ahalbidetuko duen prestakuntza-jarduera bat, gutxienez.

5.8. Pentsiodunentzako DSBEaren osagarria jasotzeari buruzko alderdi espezifikoak

Aurrez adierazi denez, pentsiodunek tratamendu bereizia dute DSBEaren esparruan, familia-unitateak zehazteko zenbatekoak eta mekanismoak desberdinak baitira biztanleria osoari aplikatzen zaizkionekin alderatuta. DSBEa pentsio-osagarriaren modalitatean zehazteko, elementu nagusi hauek kontuan hartuko dira:

- Aurrez adierazi bezala, pentsiodunek ezohiko bizikidetza-unitateak eratu ahal izango dituzte, baita ahaidetasun-harremanak dituzteneko pertsonekin bizi diren kasuetan ere.
- Lege honen ondorioetarako, pentsioduntzat hartuko da honako egoera hauetako bati dagokion pentsioaren onuraduna: kotizaziopeko erretiroa, ezintasun iraunkorra, alarguntasuna, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru, kotizazio gabeko baliaezintasuna edo erretiroa eta zurtasuna —baldin eta onuraduna adin nagusikoa eta ezindua bada, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko graduan—. Pentsioduntzat hartuko da, baita ere, bere kargura seme-alabak izateagatik familia-prestazio baten kausatzaile den adin nagusikoa.
- Pentsiodunek osatutako bizikidetza-unitateei dagokien prestazioaren oinarritzko zenbatekoa % 40 gehituko da.
- Pentsiodunek ez dute gizarteratzeko programa integral eta iraunkor bat sinatu beharrik izango.

5.9. Enplegurako pizgarriekin lotutako alderdiak

2017ko maiatzean aurkeztutako DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuan adierazten zenez, enplegurako hobari-sistema bat egotea da diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduaren berezitasun nagusietako bat, Espainiako estatuko beste autonomia-erkidego batzuetan orain arte ezarritako ereduaren aldean. Hobari horrek soldata-osagarritzat dihardu.

Enplegurako pizgarrien bidez artikulatzen den mekanismo hori diru-sarrerak bermatzeko sistemaren parte da hasiera-hasieratik (lehen erregulazioa Gizarteratzeko gutxieneko sarrerari buruzko 2/1990 Legean jaso zen), eta, batik bat, bermatu nahi du lanpostu bat betetzen duen

pertsona orok lortzen duen diru-sarrera —familia-egoera bererako edo bizikidetasun-egoera bererako— handiagoa izatea prestazioa bat jasotzen duten eta lanik egiten ez duten pertsonak jasotzen dutena baino. Hartara, pertsona orok enplegua lortzea sustatu nahi da. Egungo testuinguruan, argi dirudi mota horretako mekanismoak mantendu eta indartu beharra dagoela. Figura hori mantendu eta indartzeko beharra elkarrekin lotutako elementu hauetan oinarrituta justifika daiteke:

- Sistemak lortu dituen emaitza onak. Izan ere, egindako azterlanen arabera, enpleguan pobrezia nabarmen murrizten lagundu du, soldaten jaitsiera orokorrik sortu gabe eta enplegu-maila orokorretan kalterik eragin gabe —alderantziz, bada—. Ildo horretatik, gogorarazi behar da EAE dela krisialdian langabezia-tasa 80ko eta 90eko hamarkadetan erregistratutakoa baino askoz ere txikiagoa izan duen autonomia-erkidego bakarretakoa.
- Bermatu beharra dago egiturazko izaeraz eta iraunkorki lanpostu bat lortzea, oso ordainsari txikiarekin ere, ikuspegi ekonomikotik beti onuragarriagoa izatea jarduerarik eza baino. Eragin hori lor daiteke, era berean, prestazioen zenbatekoa oro har murriztuta eta soldata-maila txikiaren oso azpitik jarrita. Alabaina, horrek drastikoki mugatuko luke DSBEak Euskal Autonomia Erkidegoan egun duen pobrezia murrizteko ahalmena, bai eraginari dagokionez, baita intentsitateari dagokionez ere. Hortaz, uste da eragin pizgarri hori behar adinakotzat hartzen ez diren soldatak etengabe osatuta bilatu behar da, ez, ordea, prestazioaren oinarritzko maila jaitsita.
- Egungo testuinguru sozioekonomikoan, egiaztatu da DSBEaren jasotzaile gehienek oro har lortzen dituzten lanpostuen bereizgarri direla ezegonkortasuna, soldata txikiak, lanaldi partzialak eta kontratazioaldi baterakoak eta etenak. Mota horretako enpleguak haztearen testuinguruan, beharrezkoa suertatzen da DSBEaren jasotzaileak lan-merkaturatzea sustatuko duten neurriak abiaraztea. Horiek, gainera, soldata txikien gero eta arazo handiagoari erantzun behar diote. Nolanahi ere, nabarmendu beharra dago, halaber, diru-sarrerak bermatzeko sistema ez dela arazo horiei heldu behar dien bakarra (ezta hori lehentasunez egin behar duena ere) eta beste neurri batzuk abiarazi behar direla (gutxieneko soldata, negoziazio kolektiboa, etab.) helburu horiek lortzeko.
- DSBEaren esparruan, laneratzera gehiago bideratutako portaerak bultzatu behar dira.
- Mota horretako modalitateek prestazio-gastu txikiagoa dakarte. Izan ere, bizikidetzak unitateen soldata-sarrerak osatzen dituztenez, beste modalitateen aldean askoz zenbateko txikiagoak dira. Beste horiek, aldiz, gehiago hurbiltzen dira gehieneko zenbatekora —pentsiodunen kasuan izan ezik—.

Diagnosticoko horretatik abiatuta, oinarrien dokumentu honetan planteatzen den erreformak Legebiltzarrean 2018an aurkeztutako erreformaren espiritua du. Izan ere, laneratzeko zailtasun handiagoko testuinguru batean, beharrezkoa da gizarteratzeko ereduak berma dezala lan-merkatuan sartzea prestazio ekonomikoak jasotzea baino aukera erakargarriagoa eta errentagarriagoa izatea. Horren ondorioz, berriro planteatu beharra dago enplegurako pizgarrien sistema, diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduaren mekanismorik esanguratsuenetakoa eta eraginkorrenetakoa baita, eta komeni da 1998an ezarritako jatorrizko planteamendura itzultzea, denbora-mugarik izango ez duen enplegurako pizgarrien sistemarekin.

Zehazki, elementu nagusi hauek planteatzen dira enplegurako pizgarriak zehazteko:

- Berriro sartzen da mekanismo horren izaera mugagabea, eta berariaz ezabatzen da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 20.3.b artikuluan planteatutako enplegurako pizgarriak jasotzeko aldi baterako izaera.
- Aurrez adierazitakoaren ildotik, jaso beharreko zenbatekoak hiru hilean behin eguneratzeko sistema bat ezartzen da, familia-unitate bakoitzari bermatzen zaion DSBEaren zenbatekoaren eta bizikidetzak-unitateak aurreko hiruhilekoan lortutako hileko batez besteko diru-sarreraren arteko aldetik abiatuta.

- Erregelamendu bidez ezarriko da laneko diru-sarrerak kontuan hartzeko formula, DSBEaren zenbatekoa kontuan hartzeari begira. Bien bitartean, 2001eko otsailaren 14ko Aginduan xedatutakoaren arabera erregulatuta jarraituko dute laneko diru-sarrerek.

5.10. Gizarte-larrialdietarako laguntzekin lotutako alderdiak

Ildo horretan, gizarte-larrialdietarako laguntzak ez-aldizkako eta diruz laguntzeko prestaziotzat artikulatzen dira, eta xede dituzte gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifiko ohiko nahiz apartekoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonak.

Dokumentu honetan planteatzen den erreformak, funtsean, mantendu egiten ditu gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko xedapenak, 2018an Legebiltzarrean aurkeztutako proposamenean jasotakoak. Ildo berean, haien erregulazioak ez du aldaketa esanguratsurik sartzen 18/2008 Legearekiko, lege honetan aurreikusitako bizikidetza-unitateen konfiguraziora egokitzea eta onuradunen baliabide guztiak kontuan hartzea eskatzen duten aldaketetatik haratago. Baliabide horiek diru-sarrerak bermatzeko errentarekiko komunak dira.

6. Ikuskatzeko ahala eta zehapen-araubidea

6.1. Ikuskatzeko, egiaztatze eta kontrolatzeko ahala

Lege honen esparruan ikuskatzeko ahala erregulatzen duten elementuek zaintza- eta kontrol-parametro klasikoei jarraitzen diete, eta ekarpen erabakigarria egiten dute Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarriak babesteko, titularren eta onuradunen eskubideak babesteko, prestazioen zuzentasuna ziurtatzeko eta horiek eskuratu eta mantentzeko parametro arauemaileetara egokitzeke.

Helburu horrekin, Legeak ezartzen du Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak ikuskapen-ahala baliatuko duela lege honetan eta ezinbesteko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudian ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzeari dagokionez, hargatik galarazi gabe Gizarte Segurantzaren sistemari dagokionez Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzako kidegoetako funtzionarioei dagokien ikuskapen-eginkizuna betetzea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza Sistema antolatzen duen legeriaren arabera.

6.2. Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-plana

Ikuskapena funtsezko zerbitzua da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari, eta amaiera ematen dio sistema horren iraunkortasuna eta legitimitatea bermatuko duten neurrien multzoari. Ideia horretatik abiatuta, Legeak ezartzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta lan-arloan eskumena duen sailak urtero batera onartuko dutela Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioetan laguntzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko plan bat. Plan horren helburua izango da ez-betetzeak prebenitzea, ikertzea eta kontrolatzea, baita Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioak aitortzeko eta jasotzeko betebeharrak borondatez bete daitezen sustatzea ere.

Ikuskapen-jarduera Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak lortzeko betekizunak eta lege honek eta bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko araudiak haien titularrei eta onuradunei ezarritako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeraz eta betetzen direla ziurtatzeko aholkularitza ematera bideratuko da.

Urteko laguntza-, ikuskapen- eta kontrol-planak, gainera, prestazioen titularrei edo onuradunei edota edozein eskatzaile potentzialari informazioa eman eta laguntzeko zerbitzuak etengabe hobetzeko estrategia bat zehaztuko du. Estrategia horrek teknologia berrien erabilera lehenetsiko du, eta, nolana ere, bazterketa digitalik ez jasateko eskubidea eta baliabide analogikoen bidezko laguntzaren eta informazioaren nahikotasuna bermatuko ditu.

6.3. Lanbideren ikuskapena

Ikuskapen-jarduera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ikuskatzaileek egingo dute, eta ikuskatzaile horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuen arabera ikuskatzeko ahala esleituta duen organoari atxikita egongo dira.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko ikuskatzaileak agintaritzaren agentetzat hartuko dira ikuskapen-jardueran ari direnean. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Ikuskaritzak eginkizun hauek izango ditu:

- Lege hau eta berau garatzeko arauak betetzen direla zaintzea eta egiaztatzea.
- Arau-haustea izan daitezkeen egitateen inguruko erreklamazioak edo salaketak egiaztatzea.
- Kautelazko etete-neurriak har daitezen proposatzea.
- Zehapen-prozedura has dadin proposatzea.

6.4. Zehapen-araubidea

Lege honetan jasotzen den zehapen-araubidea funtsezko hiru berritasun sartzen ditu:

- Arau-hauste larrienetarako isun-zehapenak kentzea. Hala ere, zehapen horiei atxikitzen zaie —arau-haustearen larritasunarekiko proportzio egokian— honako neurri hauek: prestazioak eta laguntzak azkentzea eta, hala badagokio, jasotako laguntzak itzuli behar izatea, baita horiek eskuratu ezin izatea ere urte eta erdi eta hiru urte bitarteko aldian —aldi hori bost urtera arte luzatu ahal izango da larritasun bereziko inguruabarretan—.
- Zehapenen katalogo bat aurreikustea arau-haustea egin den unean laguntzen titular edo onuradun ez diren erantzuleentzat.
- Hamasei urtetik gorako eta hemezortzi urtetik beherako arduradunek ezarrita dauden zehapenen ordezkizko gizarte-intereseko prestazioak egin ahal izatea, betiere beren berariazko baimenarekin. Prestazio horiek adingabetasunera egokitutako aldietan luzatuko dira.

Gogoeta horietatik abiatuta, dokumentu honetan jasotako proposamenak berriz definitzen ditu zehapenak eragin ditzaketen arau-haustea —arinen, astunen eta oso astunen arteko bereizketari eutsiz—, zehapen-araubidea ohartarazpenetan eta etenaldietan oinarrituta. Arau-haustea arinak, astunak eta oso astunak izan daitezke. Jarraian datorren taulan, ezarritako gradu bakoitzari dagozkion arau-haustea jasotzen dira.

Arau-hauste arinak	- Arau-hauste arinak dira diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzea edo mantentzera bideratutako ekintzak edo omisioak, betiere ekintza edo omisio horien ondorioz zenbateko bat bidegabe jaso bada eta zenbateko hori hilean dagokion zenbatekoaren % 50 baino handiagoa bada.
Arau-hauste astunak	- Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzea edo mantentzera bideratutako ekintzak edo omisioak, betiere ekintza edo omisio horien ondorioz adierazitako prestazioaren edo laguntzen zenbateko bat bidegabe jaso bada eta zenbateko hori hilean dagokionaren % 50 baino handiagoa eta % 100 edo txikiagoa bada. - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari edo dagokion udalari ezkutatzea prestazioa lortzeko eta mantentzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzeko eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoaren aldizkako eguneratzea egiteko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa, eta ez ematea jakinarazpenak eta komunikazioak jasotzen direla bermatzeko beharrezkoa den informazioa.

	- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazioen edo laguntzen titularren edo onuradunen egoera ekonomikoa larriagotzea. - Ikuskarpen-funtzioak esleituta dituzten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko edo dagokion udaleko pertsonalak egiten duen lana oztopatzea. - Hirugarren arau-hauste arin bat egitea, aurreko bi urteetan zehatua izan bada.
Arau-hauste oso astunak	- Diru-sarrerak bermatzeko errenta edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzera edo mantentzera bideratutako ekintzak edo omisioak, horretarako betekizunak betetzen ez direla jakinik egiten direnean eta ekintza edo omisio horien ondorioz prestazioen bat bidegabe jasotzen denean, eta prestazio horren zenbatekoa hilean dagokionaren % 100 baino handiagoa denean. - Prestazio bidegabeak edo bidezkoak baino handiagoak lortzeko edota prestazio horiek bidegabe luzatzeko iruzurrez jardutea, datu edo dokumentu faltsuak aurkeztearen bidez. - Erantzukizunpeko adierazpen bati erantsitako edozein datu edo informazio faltsutzea. - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko langileak lege honetan aipatzen diren prestazioak kontrolatu eta ikuskatzeko funtzioak betetzean derrigortzea, mehatxatzea edo haien aurka indarkeria erabiltzea, baita larritzat hartutako oztopatze-jokabideetan bererrerortzea ere. - Hirugarren arau-hauste astun bat egitea.

- Arau-hauste arinak zehatuko dira arau-hausleari ohartarazpena egitearekin eta bidegabe jasotako zenbatekoaren berdina izango den isun batekin.
- Arau-hauste astunak zehatuko dira diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearekin, gizarte-larrialdietarako laguntzak kobratzeko ezintasunarekin eta, hala badagokio, jasotakoak itzultzearekin, eta laguntza horiek lortzeko ezintasunarekin (urte eta sei hilabetera bitarteko aldiaren zehapena gutxieneko mailan ezartzen denean, urte eta bederatzia hilabetera bitarteko aldiaren maila ertainean ezartzen denean, eta bi urtera bitarteko aldiaren gehieneko mailan ezartzen denean).
- Arau-hauste oso astunak zehatuko dira diru-sarrerak bermatzeko errenta azkentzearekin, gizarte-larrialdietarako laguntzak kobratzeko ezintasunarekin eta, hala badagokio, jasotakoak itzultzearekin, eta laguntza horiek lortzeko ezintasunarekin (bi urtera bitarteko aldiaren zehapena gutxieneko mailan ezartzen denean, bi urte eta bederatzia hilabetera bitarteko aldiaren maila ertainean ezartzen denean, eta hiru urtera bitarteko aldiaren gehieneko mailan ezartzen denean).
- Arau-hauste oso astun bat egin aurreko bost urteen barruan arau-hauslea administrazio-bidean irmoa den arau-hauste oso astun batengatik zehatu bada, diru-sarrerak bermatzeko errenta azkendu egingo da, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak kobratzeko ezintasuna edota jasotakoak itzultzeko betebeharra eta prestazioa eta laguntzak bost urteko aldi batean lortzeko ezintasuna deklaratu da.

2018an planteatutako erreforma-proposamenari dagokionez, honako proposamen honetan ere balizko arau-hausteen erantzuleztat jotzen dira, prestazioaren onuradun edo eskatzaile izan gabe, lege honetan arau-hauste gisa tipifikatutako jarduketetan haiei laguntzen dietenak (dolo edo erruz), beren laguntzarik gabe ezin izango balitz arau-haustea egin. Ekintza horiek egiten dituzten pertsonen zehapen ekonomikoa ezarriko zaie, eta debekatu egingo zaie diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskuratzea aldi jakin baterako.

7. Gizarteratzera eta laneratzera bideratutako tresnak

DSBEa erreformatzeko Batzorde Teknikoak 2016an prestatutako dokumentuan adierazten zenez, Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren diseinuarekin lotutako oinarritzko eztabaida kontzeptualetako bat da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidearen eta gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzak jasotzeko eskubidearen arteko artikulazioari buruzkoa. Jakina denez, gaur egun DSBEa erregulatzen duen araudiak 'eskubide bikoitza'ren filosofia du abiapuntu. Filosofia horrek aitortzen du bizitzako oinarritzko premiei aurre egiteko behar adina baliabide ekonomiko izateko eskubidea, horiek enplegutik edo gizarte-babeseko edo -laguntzako hainbat araubidetatik behar adinako kopuruan lortzerik ez dagoenean. Bestetik, laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatuak jasotzeko eskubidea ere aitortzen du. 18/2008 Legearen arabera: "(...) eskubide bikoitzaren ereduak lotura-mota berria ezartzen du prestazio ekonomikoaren eta gizarteratzeko jardueren artean". Bi logika ezberdin daudela aitortzen da, nahiz eta lotuta dauden, gizarteratzeko hitzarmenetan nahitaez parte hartzea ezartzen baita. Horiek diseinatuta daude pertsona bakoitzak bere gizarteratze-ibilbidean zehar behar ditzakeen laguntzak antolatzeko.

Eskubide bikoitzaren ideia horren aurrean, planteatu da diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresnek, egiaz, bi eskubide desberdin bermatu behar dituztela, elkarren artean loturarik ez dutenak. Planteamendu horietan ez da zalantzan jartzen prestazioaren baldintzapeko izaera —atalase jakin batetik beherako diru-sarrerak dituzten eta beren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik diru-sarrera propiorik ez duten pertsona edo bizikidetzak-unitateentzat izaten jarraitzen du—, baina zalantzan jartzen da gizarteratzeko hitzarmenetan eta horietatik eratorritako jardueretan nahitaez parte hartu behar den ala ez, gizarteratzeko laguntza batzuk jasotzeko eskubideak, eskubide den aldetik, betiere borondatezkoa izan behar duela jotzen baita. Ikuspegi horretatik, sartzeko betekizun batzuk eta betebeharrak argi batzuk ezarri ondoren —besteak beste, egokitutako jotzen den lanpostu bati uko ez egitea—, gizarteratzeko jardueretan parte hartzea prestazioa jasotzetik bereizi beharko litzateke, eta hori borondatezkoa izan dadin planteatu, horrela prestazioaren baldintzapen-maila jaisteko.

Eztabaida horren aurrean, eta DSBEa erreformatzeko Batzorde Teknikoak 2016an planteatutakoaren ildotik, oinarrien dokumentu honek eskubide bikoitzaren kontzeptuari eustearen eta hura indartzearen alde egiten du, 18/2008 Legean jada ezarritakoari jarraituz. Hala, argi dago, Legeak berak onartzen duenez, bi eskubideetako bakoitzak logika desberdinei erantzuten diela, baina azpimarratu behar da bi eskubideen artean lotura bat dagoela, gizarteratzeko hitzarmenetan nahitaez parte hartzean gauzatzen dena batik bat. Beraz, funtsezko kontua da konbinatzen ahalegintzea, batetik, babes ekonomikorako baldintzarik gabeko eskubidea —premia-egoera objektiboaren barruan— eta, bestetik, autosufizientzia pertsonala bide normalizatuaren bitartez bermatzen saiatuko den laguntza-eredu bat. Ildo horretatik, gaur egun, bide normalizatuak dira, oraindik ere, adin aktiboan dauden pertsonak lan-merkatuan sartzekoak.

Gogoeta horietatik abiatuta, proposatzen den DSBEaren erreformak elementu hauek planteatzen ditu gizarteratzeko eta laneratzeko tresnei dagokienez:

- Hasierako triaje-eredu bat garatzea, horrek bidea ematen baitu ondoren erabiltzaileen premiei buruzko diagnostikoa egiteko, haien profilaren arabera, bai Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aldetik, bai Gizarte Zerbitzuen aldetik.
- Gizarteratze aktiborako hitzarmena berriz diseinatzea. Aurrerantzean, Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala deituko zaio. Esku-hartze mota indibidualizatu hori laguntza- eta babes-premia handienak dituzten pertsonengan ardazteko, diru-sarrerak bermatzeko prestazioaren titularrak eta onuradunak programa hori negoziatzera eta sinatzera behartuta egongo dira prestazioa eskuratu dutenetik urtebete igarotzean.
- Erreferentziako profesional bat esleitzea, erabiltzaileen profilaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo Gizarte Zerbitzuetan. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziako teknikari bat esleitu du, eta teknikari hori arduratuko da Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala bultzatu, negoziatu, sinatu, jarraipena egin eta ebaluatzeaz. Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonalak gizarteratzea

lehenesteko beharra agerian jartzen duenean, erreferentziazko profesionala gizarte-zerbitzuetan kokatuko da.

- Prestazioa jasotzearekin lotutako beste eskubide batzuk artikulatzea.

7.1. Premiak bereizteko eta diagnostikatzeko tresnak

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak triaje-tresna bat aplikatuko die DSBEaren onuradun guztiei, lan-beharrak eta/edo gizarte-beharrak eta diagnostikoan esku hartu behar duten sistemak detektatzeko. Egoeraren balorazioa bi hilabeteko epean egingo da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak aitortzen diren egunetik edo, bestela, eskaera egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Triaje horretatik abiatuta:

- Triage-tresnak ezartzen duenean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hartzaileen laneratze-beharren diagnostiko bat egingo du aurreko artikuluan adierazitako epe berean. Lan-diagnostikoa erreferentziazko profesionalak egingo du hartzaileen parte-hartze aktiboarekin, eta elkarrikketa sakon batek, enplegarritasunari buruzko inkesta batek eta dagokion enplegua aktibatze programaren preskripzioaren ezarpenak osatuko dute.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzea beharrezkoa denean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak gizarte-zerbitzuetara bidaliko du erabiltzailea, gizarte-diagnostikoa egitera, bere araudian xedatutakoari jarraikiz.

7.2. Gizarteratzeko plan integral eta pertsonalizatuen helburua eta ezaugarriak

Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala gizarteratze-zerbitzu partaidetu bat da, non alderdi sinatzaileek zenbait konpromiso hartzen dituzten bazterketa-arriskua prebenitzeko edo, hala badagokio, bazterketa-egoera desagerrarazi eta hartzaileen erabateko laneratzea eta gizarteratzea lortzeko. Bi urteko indarraldia izango du, eta jarraipena egingo zaio, hartzaileak gizarteratzeko helburua lortzeko beharrezkoak diren aldaketak egiteko. Gainera, iraupen bereko indarraldietarako luzatu ahal izango da.

Diru-sarrerak bermatzeko prestazioaren titularrek eta onuradunek Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala negoziatu eta sinatu beharko dute nahitaez, prestazioa aitortzen denetik urtebete betetzen denean. Ez dute programa hau sinatu beharrik izango egoera hauetakoren batean daudenean:

- Ikasketa arautuak egiten aritzea eta 28 urtetik beherakoa izatea. -
- Ezintasun iraunkor absolutuagatik edo baliaezintasun handiagatik kotizaziopeko pentsioa, baliaezintasunagatik kotizazio gabeko pentsioa, kotizaziopeko erretiroagatik pentsioa edo 65 urte bete izanagatik pentsioa jasotzen aritzea, eta umezurtz-pentsio baten onuradun adin nagusikoa izatea, betiere onuradunak ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia duten adin nagusikoak badira.
- % 65eko edo hortik gorako graduak desgaitasun bat izatea edota gutxienez II. graduak mendekotasun-egoera aitortuta izatea.

Gizarteratzeko Programa Integratua eta Pertsonala

- Gizarte-zerbitzuek landutako arreta pertsonalizatuko plana, hala badagokio.

- Lan-diagnostikoaren emaitzaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak laneratzeko ibilbide pertsonalizatu bat eta, hala badagokio, enplegu-akordio pertsonal bat zehaztuko du, eta enplegurako orientazioa eta bitartekaritza eskainiko du.
- Egoeraren eta beharren hasierako baloraziotik ondorioztatzen denean, etxebizitza-, osasun- edo hezkuntza-sistemen esku-hartzea.

Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala hamabost hilabeteko gehieneko epean sinatuko da, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak onartzen diren egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota, bestela, bi hilabeteko epean, gizarte-diagnostikoa eta/edo lan-diagnostikoa egiten diren egunetik aurrera zenbatzen hasita.

7.3. Erreferenteak ezartzea Enplegu eta Gizarte Zerbitzuen sistemetan

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziako teknikari bat esleitu du, eta teknikari hori arduratuko da Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala bultzatu, negoziatu, sinatu, jarraipena egin eta ebaluatzeaz.

Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonala egitean gizarteratzea lehenesteko beharra agerian geratzen denean, erreferentziako profesionala Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari kokatuko da.

7.4. Laneratzeko eta gizarteratzeko programak eta zerbitzuak

Laneratzeko eta gizarteratzeko programak eta zerbitzuak honako hauek osatzen dituzte:

- Enplegarritasuna hobetzeko laguntza-zerbitzuak. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegarritasunean laguntzeko honako zerbitzu hauek bermatuko ditu:
 - o Lan-merkatuko konpetentzia garrantzitsuen identifikazio eguneratua.
 - o Aholkularitza eta orientazio profesionala.
 - o Prestakuntza indibidualizatua, ibilbide profesional pertsonalizatuak bultzatzea, eta gaitasun digitalei eta zeharkako beste gaitasun batzuei lotutako prestakuntza.
 - o Konpetentzien tutoretza, ebaluazioa eta balidazioa, hezkuntza-arloan eskumena duen sailari dagozkionak galarazi gabe.
 - o Enplegua bilatzeko laguntza eta enpresa-ekimenaren babesa.
- Laneratzea helburu duten euskal administrazio publikoen programak eta zerbitzuak. Euskal administrazio publikoek, prestakuntzaren eta enpleguaren arloan dituzten eskumenen esparruan, neurriak hartuko dituzte beren ezaugarriengatik lan-merkatuan berdintasun-baldintzetan sartu ezin diren edo sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak edo taldeak lan-merkatuan txertatzeko aukera bultzatu eta errazteko. Neurri horien artean egon daitezke, besteak beste, lanerako prestakuntza, lan-bitartekaritza, laneratzeko laguntza eta babesa edo enplegu lagundua.
- Euskal administrazio publikoek gizarteratzera bideratutako programak eta zerbitzuak. Euskal administrazio publikoek, gizarteratze-arloan dituzten eskumenen esparruan, hainbat neurri hartuko dituzte gizarte-zerbitzuei buruzko araudian bazterkeria-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzat ezartzen diren zerbitzuak eta prestazioak lortzeko aukera bultzatu eta errazte aldera.

7.5. Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzearekin lotutako eskubideak

Gizarteratze-politikaren zeharkakotasunaren esparruan, eta dagokion araudi sektorialak xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek sustatu egingo

dute honako eskubide hauek aitortuta izan ditzatela Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio, laguntza eta zerbitzuen titular eta onuradunek:

- Etxebizitza, Etxebizitzari buruzko ekainaren 3/2015 18 Legea garatzen duen araudian ezarritako prozeduren esparruan.
- Lana eta familia bateragarri egitea, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxe publikoetan plazak eskuragarri egongo direla bermatuta.
- Ikasketetarako laguntzak eta bekak hezkuntza-etapa guztietan.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak.
- Aisialdiko, kulturako eta kiroltako udal-zerbitzuetarako sarbidea.

8. Sistemaren gobernantza

8.1. Administrazioen arteko koordinaziorako eta parte-hartze sozialerako tresnak

Dokumentu honetan planteatzen den araudiaren erreformak eutsi egiten die 2018an administrazioen arteko koordinaziorako eta parte-hartze sozialerako tresnei buruz planteatutako proposamenaren funtsezko elementuei. Esparru horretan:

- Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea euskal administrazio publikoen arteko lankidetzarako erakunde goren izango da, lege honetatik eratorritako jarduketetan erakundeen arteko koordinazioa ziurtatzeko. Batzorde horretan sartuko da egun indarrean dagoen araudiak ezarritako Sailarteko Batzordea.
- Gizarteratzeko Euskal Kontseilua aholkatzeko eta parte hartzeko organo gisa eratzen da, eta diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da. Bertan, honako hauek egongo dira ordezkaturak: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, udalak, sindikatuak, enpresa-erakundeak, erabiltzaileen erakundeak, gizarteratzearen arloan esku hartzen duten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak eta gizarteratzearen eremuan lan egiten duten profesionalen erakundeak.
- Gizarteratzeko Euskal Planak modu koordinatu eta orokorrean jasoko ditu bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarteratzea lortzeko administrazio eskudunen jarduera bideratu behar duten esku-hartze eta jarduketako ildoak eta jarraibideak. Bost urteko plana izango da.

Administrazioen arteko koordinazioaren ikuspegitik ere garrantzitsua da Legean xedapen gehigarri bat sartzea. Horren arabera, legea argitaratu eta urtebeteko epean, diru-sarreraren eta gizarte-zerbitzuen alorrean eskumena duten sailek beren sistemen eta aplikazioen elkarreragingarritasuna eta elkarreragingarritasuna eta interkonexioa bermatuko dute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak oinarritzko gizarte-zerbitzuei gizarte-diagnostikorako eskabideak egin diezazkien bitarteko elektronikoen bidez soilik, oinarritzko gizarte-zerbitzuek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari bitarteko elektronikoen bidez soilik helaraz diezazkioten diagnostiko sozialaren eta plan pertsonalizatuaren datuak, hala badagokio, Gizarteratzeko Programa Integratu eta Pertsonalean sartu beharrekoak.

8.2. Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren eta zerga-tresnen arteko lotespena

Zenbait lanek agerian utzi dute zerga-tresnak erabiltzea dela —salbuespenak, zerga-arintzeak eta kenkariak, oro har, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) lotutakoak— familiei laguntzak emateko moduak aldatzen ari den joeretako bat, gizarte- eta zerga-politiken integrazio gero eta handiagoaren esparruan. Lan horiek agerian utzi dute EAEn arlo horretan ezarritako ereduaren berezitasun erlatiboa. Eredu horrek zuzeneko prestazioetara eta zerga-kenkarietara

jotzen du antzeko premiei erantzuteko. Gaur egun indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Familiei Laguntzeko Planaren arabera, “Eredu atipikoa da Europan, izaera selektiboa du eta nolabait duala da. Eredu horretan errenta ertaineko eta handiko familiek zerga-arintzeekin eta zerga-presio txiki batekin lortzen dute onura, eta errenta txikieneko familiek, edo diru-sarrerarik gabeko familiek, errenta minimoen sistemarekin lortzen dute onura —sistema hori populazio osora zabalik dagoen arren, diru-sarrera maximo batzuk jasotzera baldintzatuta egongo da zorroztasunez—. Gainera, eredu atzerakoia da, errenta oso baxuko familiek ez baitute abantailarik ateratzen, ez osorik behintzat, onura fiskal horietatik.

Gure inguruan hainbat proposamen egin dira egoera hori hobetzeko eta, gizarte- eta zerga-politiken integrazio handiagoaren bidez, erantzun integralagoa eta arrazionalagoa emateko herritar guztien beharrei. Ildo horretan, 2017an prestatutako DSBEa erreformatzeko oinarrien dokumentuan planteatzen zen kenkari fiskal aurreratu itzulgarriak edo zerga-politikak eta diru-sarrerak bermatzekoak hobeto integratu ahal izateko bestelako neurriak zergen esparru orokorrean sartzeari komeni den ala ez aztertzeko proposamena Finantzen Euskal Kontseilura eramatea. Aukera hori Eusko Legebiltzarrean 2018an aurkeztutako erreformaren seigarren xedapen gehigarrian sartu zen.

Oinarrien dokumentu honetan planteatzen den proposamenak gizarte- eta zerga-politikak integratzearen aldeko apustu berari eusten dio, eta baldintza berberetan mantentzen du 2018an aurkeztutako erreforman ezarritako bosgarren xedapen gehigarria. Horren arabera, “lege hau onartu eta urtebeteko epean, Eusko Jaurlaritzak Finantzen Euskal Kontseiluari azterlan bat igorriko dio; azterlan horrek analisi bat jasoko du honen inguruan: komenigarria den ala ez zerga-esparru orokorrean sartzeari zerga-kenkari aurreratu itzulgarriak edo beste neurri batzuk, zerga-politikaren eta diru-sarrerak bermatzeko politikaren arteko integrazio hobea lortzea ahalbidetuko dutenak”.

8.3. Ebaluazioa, gardentasuna eta kontuak ematea

Askotan adierazi izan da esku-hartze sozialeko politiken gabezia nagusietako bat lotuta dagoela ezagutza kudeatzearen esparruan behar diren ahaleginak eraginkortasunez antolatzeke zailtasunekin: ikerketa, ebaluazioa, berrikuntza, prestakuntza, gizarte-dinamiken behaketa eta analisia, eta abar. Horren ildotik, esku-hartze sozialaren arloko zailtasun nagusiak baliabide ekonomiko edo materialen gabeziarekin daude lotuta daudenaren ideiaurrean, argudiatu da gizarte-zerbitzuen eta/edo gizarteratzeko zerbitzuen arloko gabezia nagusia lotuta dagoela behar bezain sendoa izango den “ezagutza-ekosistema” bat garatzeko edo antolatzeke zailtasunekin. Ekosistema horrek bidea eman behar du gizarte-premiak behar bezala ezagutzeko eta ebidentzian oinarritutako jardunbide profesionala ezartzeko.

Gizarte-politiken beste arlo batzuetan —hala nola osasunean edo hezkuntzan— ebaluaziora, ikerketara edo berrikuntzara bideratutako hainbat erakunde ezarri diren arren, Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago horrelako erakunderik bermearen eta gizarteratzearen esparruan, nahiz eta esparru horretan egiten diren politikek garrantzi ekonomiko eta sozial handia duten. Testuinguru horretan, esparru horretako errealitatea ikertu, ebaluatu, berritu, zabaldu, aztertu eta interpretatzeko jarduerak modu desartikulatuan egiten dira neurri handi batean, hainbat eragileren esku-hartzearekin: Lanbideko Kabinete Teknikoa, eragindako sailetako estatistika-organoak, EUSTAT, unibertsitateak, fundazioak eta Hirugarren Sektoreko beste erakunde batzuk... Hala ere, erakunde horiek kalitate handikoa lana egiten badute ere —erreferentea Estatuan alderdi askotan—, sare horrek gabezia eta muga handiak ditu. Horien artean, artikulazio eta plangintza estrategikorik eza nabarmentzen da.

Horren guztiaren ondorio da ebaluazio- eta berrikuntza-jarduerak modu mugatuan garatu izatea, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren elementuekin lotutako informazioari dagokionez hobetu daitekeen gardentasun-maila egotea, eta gizarte-beharrak identifikatzeko eta aztertzeke sistemak mendekotasun handiegia izatea ekimen partikularrekiko eta banakako ahaleginekiko. Gabeziak daude, halaber, profesionalen prestakuntzari, komunikabideei edukiak helarazteari edo ebidentzia zientifikoa zabaltzeari dagokienez. Testuinguru horretan, sarritan planteatu da diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko politikak sendotu beharra dagoela, ikerketaren, berrikuntzaren, ebaluazioaren, hedapenaren, analisiaren eta prestakuntza arloetan jarduerak

egonkortu, artikulatu eta bultzatzeko bidea emango duen plataforma bat sortuta, esparru horretako ebaluazio, ikerketa, berrikuntza eta garapenerako estrategia zabalago baten barruan⁹.

Gogoeta horietatik abiatuta, Legeak Gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa sortzea aurreikusten du. Organoa hori planteatzen da administrazio-organo espezializatu gisa, eta bere eskumen-esparrua Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren ebaluazioak, berrikuntzak eta ikerketak osatzen dute, bazterketaren prebentzioan eta desagerraraztean esku hartzeko gaitasunak garatu eta etengabe hobetzeko tresnak diren heinean. Ezaugarri nagusi hauek ditu:

- Gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoa kide bakarreko organo gisa sortzen da. Titularra gizarteratze-politiken azterketa eta ebaluazioari lotutako arloetan ospe handia eta gutxienez hamabost urteko esperientzia duten pertsonen artean izendatuko da.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan eskumena duen sailari atxikitzen zaio.
- Organo independentea da, eta bere eginkizunak burujabetasun funtzional eta objektibotasun osoz beteko ditu. Organoaren titularrak eta berari atxikitako langileek ezin izango dute erakunde publiko edo pribatuaren instrukziorik eskatu edo onartu.
- Organoaren titularra Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan eskumena duen sailaren titularrak egindako proposamen arrazoituaren arabera erabakitako dekretu bidez, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak aldeko txostena egin ondoren.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bermatuko du Gizarteratzearen arloko Ebaluazio, Ikerketa eta Berrikuntza Organoak behar bezala funtzionatzeko behar dituen baliabide pertsonalen eta materialen eskuragarritasuna.

8.4. Legea indarrean jartzea

Dagozkion antolaketa- eta administrazio-prozedurak egokitu ahal izateko, lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hiru hilabetera jarriko da indarrean.

⁹ DSBEa erreformatzeko 2017an aurkeztutako oinarrien dokumentuak jadanik adierazten zuen DSBEaren kudeaketari eta eraginari buruzko datuen eskuragarritasuna hobetzeko aldagetak egin behar zirela. Txosten horren arabera, nahiz eta Lanbidek, aurreko ereduarekin alderatuta, hobetu egin duen DSBEa jasotzen duten pertsonen inguruan ezarritako informazio-sistema, prestazioaren kudeaketarekin lotutako hainbat alderdiri buruzko datu komunak eskainita, "alde horretatik, egiaztatu da aukera dagoela datuen eskuragarritasuna hobetzeko eta, are gehiago, ikerketen eta/edo ebaluazioen programa espezifiko bat diseinatzeko, eta horrek ahalbidetu beharko luke Lanbidek dituen datuei etekin handiagoa ateratzea eta DSBEaren barne-dinamikak hobeto ezagutzea (sarrera- eta iteera-fluxuak, erabilera-patroiak, erabiltzaile-profilak eta abar), eta, horrela, eskura dagoen informazio estatistikoa osatzea".